

Euskara eta euskalkiak



**EUSKARA
MINTZAGAI**

4



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Saiburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Euskara Mintzagai bildumak gure hizkuntzaren sustrai, enbor, adar eta fruituak ondo asko aztertu nahi ditu eta euskaltzale guztiei ikerlan monografikoetan eskaini. Milaka urte dituen mintzaira honen jatorria, bilakaera, osagaiak, kanpora eta barrura izandako harremanak, euskal jendeak sortutako kultur adierazpideak... Halakoak eta beste gertutik eta modu arin batean ezagutzeko prest dagoen horrek badu zer irakurri, zer ikasi. Aldian-aldian **HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDEZAK** argitara emango dituen liburuxka hauek gure hizkuntza, gure herria, geure burua hobeto ezagutzeko aukera emango digute.

“Hizkuntza bat, une historiko jakin baten gizatalde batek darabilen komunikabide onartua da; gizatalde bati barruko kideak elkarrekin komunika daitezten balio dion bitartekoa; eta hizkuntza batek dialektoak dituela esaten dugu. Eta zein jotzen dugu dialektotzat? Hizkuntza banako legez hartzen dugun horren aldaera bereiziak: hitzetan, gramatikan edo ahoskeran bereizitasun jakinak dituzten hizkerak. Hala ere, hizkuntza baten eta aldaera baten arteko muga non dagoen zehazten ez da beti erraza”.

Euskara eta Euskalkiak



Adolfo Arejita
Igone Etxebarria



Euskara eta Euskalkiak

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2008

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke:
<http://www.euskadi.net/ejgybiblioteka>

Un registro bibliográfico de esta obra puede consultarse en el catálogo de la Biblioteca General del Gobierno Vasco: <http://www.euskadi.net/ejgybiblioteka>

Argitaraldia / Edición	1.a, 2008ko abendua / 1. ^a , diciembre de 2008
Ale kopurua / Tirada	1.500 ale / 1.500 ejemplares
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco Kultura Saila / Departamento de Cultura
Diseinua eta azala	Antton Olariaga
Maketazioa	Junkal Motxaile
Argitaratzailea	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
Internet	www.euskadi.net
Inprimaketa / Imprime	Gráficas Santamaría, S.A.
ISBN	978-84-457-2845-1
Lege gordailua / Depósito legal	VI-576/08

Totelka bada ere lehenbiziko hitzak euskaraz esaten ikasi zuen hark helduarora iristean euskaraz hitz egiten gaizki dakiela eta belaunaldi berriek, aldiz, ondo jarduten dutela dioenik badago egon bazterretan. Halaber, badira eskualde batean erabili ohi den hizkuntza-aldaera beste batean erabiltzen dena baino hobea dela ere irizten dionik. Baieztapen horiek eta tankera bereko beste zenbait, ordea, ez dira inolaz ere egia.

Ez da egia tokian tokiko hizkuntza-aldaerak baliatzearren gure gurasoek, aitona-amonek, lagunek zein gainerako guzti-guztiak gaizki hitz egiten dutenik. Ez da egia, ustezko modernotasunaren izenean, gure kale bazterretan erabiltzen diren hizkuntza-erregistroak zaharkituta daudenik, baztertu behar direnik, lotsatu antzean baliatu behar ditugunik ere. Izan ere, behinola poetak lau haizeetara barreiatutako hura gogoan hartuz, noranahiko hizkuntza, azal oriztaren pean muin betirakoa izateko bere altzoan den-denak behar ditu euskarak.

Etxeko sukaldean, lagunartean, herriko plazan ez ezik, etengabe berrituz doan gizartearen idatz- mintza-behar berrietara euskara ongi egokitu ahal izateko, grafia, ortografia eta aditza bateratzea, lexiko berrikuntza eta estilo-garapena zaintzea, bultzatzea eta indartzea ere ezinbestekoa da, euskara biziko bada. Alabaina, kontuz! Jardun eremu formaletarako hizkuntza-eredu bateratua eratzeak, prestatzeak ohiko jardun-eremuetan baliatzen dugun eredia bazterrean utzi behar dugunik ez baitu inolaz ere esan nahi. Ezein hizkuntzatan hizkuntza-

erregistro desberdina baliatzen baita familia-giroan, lagunartean edota eremu formalagoetan hizkuntza baliatzen denean. Gurean ere, tokian tokiko hizkuntza-aldaerek eta jardun-eremuaren araberako erregistroek ematen diote bizipoza, bizitasuna euskarari, hiztunen sentimendu barrenkoienak azaleratzen lagunduz.

Labayru Ikastegiak Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin lankidetzan, Euskara Mintzagai sailaren barruan, atondu duen liburuki honek, beraz, gai hau du aztergai; batetik, erregistroak, aldaerak, eredu bateratua zer diren azaltzen saiatzen da; bestetik, euskalkien eta azpi-euskalkien eremu geografikoa, errealitate horretara hurreratzeko, ezagutzeko eta ezagutarazteko egindako hainbat ahalegin eta ikerketa azaltzen ditu; hirugarrenik, han-hemen, mendeetan zehar, euskararen aldaerak batasun bidean jartzeko hainbatek baliatu dituzten arrazoiak eta egin dituzten saiakerak deskribatzen ditu, azken ehun urteetan, Euskaltzaindiak 1968an Arantzazun burutu zuen bilkuratik hona bereziki, batasun bideak izan duen bilakaera jorratuz; eta, azkenik, euskalkiek euskara literarioan izan duten eragina eta aldaeren oraina eta etorkizuna hausnarketa-gai dira.

Euskal Herriko hiztunen aho-eguzpainetan bizi den altxorra dugu oraingoan mintzagai, aztergai. Euskara are noranahikoagoa izateko, euskara eta euskalkien arteko oreka bilatzeko, beraz, ezinbesteko elikagai.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

AURKIBIDEA

1.	Hizkuntzak eta dialektoak	11
2.	Hizkuntzak eta haien aldaerak aztertzeko metodologia	12
3.	Euskara eta euskalkiak	15
4.	Euskara guztiak enbor beretik al datoz?	16
5.	Euskal dialekto eta hizkeren ikuspegia lehen zaharrear eta klasikoetan	17
6.	Louis Lucien Bonaparte (1813-1891)	21
7.	Resurrección María Azkue (1864-1891)	25
8.	Beste ekarpen batzuk	26
9.	“Euskararen Herri Hizkeren Atlas” (EHHA) egitasmoa	29
10.	Euskararen estandarizazioa XX. mendera arte	29
11.	Euskararen estandarizazioa XX. mendean	33
12.	Euskalkiak euskara literarioaren zutabe	38
13.	Euskalkien oraina eta geroa	39
	<i>Bibliografia</i>	41
	<i>Ilustrazioen iturriak</i>	43

1. HIZKUNTZAK ETA DIALEKTOAK

Hizkuntzak aipatzen ditugunean bereizi egiten ditugu bata bestearen artean: gaztelania, frantsesa, ingelesa, alemana, italiera... eta gurea euskara. Hizkuntza diferenteak direla esaten dugu, bata besteagandik bereizi legez sumatzen ditugulako eta gizartean edo kultura mailan hartakotzat onarturik daudelako.

Baina kontu jakina da bestetik, hizkuntzok euren eboluzioaren lehenagoko aro edo aldietan elkarri lotuago egon direla gaur diren baino; zuhaitzaren irudia erabilia, enbor beraren adar ezberdinetatik eratorriak direla; latinetik hizkuntza batzuk, eta indoeuropar antzinakotik guztiak, euskara izan ezik.

Aldi berean, hizkuntza batek dialektoak dituela esaten dugu. Eta zein jotzen dugu dialektotzat? Hizkuntza banako legez hartzen dugun horren aldaera bereziak:



Hizkuntzak zuhaitzaren enbor beraren adarretatik eratorriak dira

hitzetan, gramatikan edo ahoskeran bereizitasun jakinak dituzten hizkerak. Hala ere, hizkuntza baten eta aldaera baten arteko muga non dagoen zehazten ez da beti erraza: hizkuntza bi bereziak diren eta ala hizkuntza beraren dialektoak diren eta epaitzea, hain zuzen.

Hizkuntza bat, une historiko jakin baten gizatalde batek darabilen komunikabide onartua da; gizatalde bati barruko kideak elkarrekin komunika daitezen balio dion bitartekoa; eta berdin dio gizatalde edo gizarte hori handia edo txikia den, eremu murrizt edo zabalagoan bizi den. Hizkuntza baten baldintza nagusia, atzean gizatalde bat edukitzea da, egiten dituen aldaketak egiten dituela.

Hizkuntzaren definizio batera hurbiltzeko, honako baldintzak edo ezaugarriak emango ditugu, garrantzitsuenetik apalenera zerrendaturik:

- Eragile erabakigarria dira hizkuntza bat besteetatik bereizi, banandu eta apartatzen dituzten ezaugarriak. Bereizketa edo ezberdintzea argia izatea.
- Hizkuntzaren barruko mailakatzea ere oso garrantzitsua da. Ezaugarri bateragileek, orokorrean betetzen direnek, osotuko lukete hizkuntza horren hezurdura. Hedadura mugatuagoa duten ezaugarriak, aldiz, bigarren mailakoak izango lirateke, beti ere hizkuntzaren osotasuna hausterainoko indarrak ez dutenak eta, aldi berean, hizkuntza horren ugartasunaren, pluraltasunaren erakusle.
- Hizkuntza esaten dioguna, normalean, literatura tradiziorako bitarteko edo tresna da. Ezaugarri horrek eragin handia dauka jatorri bereko dialektoetan, euren artean aldea ezartzen baitu, batek besteek baino garapen handiagoa izango duelako.

Hizkuntza definitzeko esandako guztiaren arabera, dialektoak honako ezaugarriak izango ditu:

- Zeinu-sistema bat da, baina ez autonomia, hizkuntza komun bizi zein galdu batetik zatitua baizik; normalean muga geografiko zehatza du, baina jatorri bereko beste batzuetatik askorik aldendu gabe.
- Definizio horren arabera, dialektoaren ezaugarriak behinena da jatorri bereko beste batzuetatik alde handiegirik ez izatea.

Ez da ahaztu behar literatur hizkuntza edo kultur hizkuntza esaten diegunak jatorrian dialekto apalak baino ez direla. Bestela esanda, aldi baten dialekto zirenak dira denboraren buruan hizkuntza bihurtu direnak. Hala, aldi batean latin hizkuntzaren herri-aldiera ziren hizkerak hizkuntza izatera etorri dira: frantsesa, italiara, gaztelania, portugesa, katalana edo errumaniera.

Beste kasu batzuetan ez da holakorik gertatu, administrazio, politika edo gizarte arazoak bitarteko direla. Aleman hizkuntzak baditu dialekto bi argi bereziak, goikoa eta behekoa, *hoch* eta *platt*. Goikoaren aldaera bat nagusitu da hizkuntza literario gisa, behekoa dialektotzat jo izan den bitartean. Baina Holandan eta Flandesen behe-aleman horren aldaera bat bihurtu da hizkuntza literario, estatu eta administrazio aparteko bat dela medio.

Hizkuntza-aldarok direla eta, esan behar da sarritan ez dagozkiola muga eta banaketa administratiboari, baina administrazio bakoitzak bere hizkuntza eredia goian jartzera jotzen du, bere ardurapean baitago erabileraren gaineko legeak ezartzea eta legeok betearaztea. Aginte politiko edo administrazio baten jokabideak eragin

zuzena izan ohi du hizkuntza-aldaren statusean; onartua denean indartu eta hedatu egiten da eta hizkuntzaren maila onartu, baina ukatua edo baztertua denean, murriztu eta erkinu egiten da, eta sarri dialektotzat baino ez da ezagutua.

Espainian, katalan-valentzieraren gaineko eztabaida oraindino ere hor da; hizkuntza bera dira izatez, baina administrazio bi izanik, diferentzetat jotzen dituzte batzuek. Galiziera eta portugesa ere bat ziren lehenago, baina estatu berezietan erabili izanak hizkuntza bereizitzat hartzera eroan ditu. Ostera, Holandan eta Belgikako Flandesen egiten dena hizkuntza berbera da, estatu bi izanagatik.

Herrialdeen mugak historian zehar aldatu direnean, eragina izan dute hizkuntzen erabileran, maila ofizialean batez ere. Erromatarrek, kasurako, latina eroan zuten inperioko lurralde guztietara, eta haien oinordeko dira hizkuntza erromaniko guztiak.

2. HIZKUNTZAK ETA HAIEN ALDAERAK AZTERTZEKO METODOLOGIA

Dialektologia deritza Hizkuntzalaritzaren barruan hizkuntzen aldaera eta dialektoen eremua aztertzen duen jakintza-adarrari. Dialektologiak, hasierako aldietan dialektoak unitate itxitzat hartzen zituen, bata besteagandik osoro aldenduak balira legez. Dialektologia azterketak XIX. mendean indarra hartu zuen, berez lehenagotik sortua bada ere. Sarritan baina, azterketok deskriptiboak ziren, batak bestearekin zerikusi gabekoak edo irizpide ezberdinekin landutakoak. Horregatik,

banan balio handia duten arren, elkarren artean konparatu ahal izateko eragozpen handiak daude, ostera.

Geografia Linguistikoa deritzanak zorroztasun handiagoa ekarri zuen metodologian, eta beste ondorio batzuk eragin ditu.



2




3

Dialektologiako lanak eta ikerketak ugaritu egin dira aldizkari espezializatuetan. Monografia moduan ere asko ateratzen dira azken urteetan.

Geografia Linguistikoak, Dialektologiak bezala, hizkuntzaren aldaerak espazioan aztertu eta emaitzak mapetan erakusten ditu. Zientzia honen ekarpena hau da: hizkuntza-gertaerak aurretiaz erabakitako lekuetan aztertzen ditu, metodologia zehatz batekin, zuzeneko inkesten bitartez, eta mapetan jartzen ditu. Mapa multzoak atlas linguistikoa osatzen du.

Geografia linguistikoaren sortzailea Jules Gilliéron izan zen, *Atlas linguistique de la France* (ALF) egitasmoaren zuzendaria. Hain arrakastatsua izan zen, non berai aipatzen eta hartzen baita behin eta berriro eredu gisa beste hizkuntza eta herrialde batzuetan atlasak egin orduan; metodologia berarekin abiarazi dira atlas linguistikoak, batez ere hizkuntza erromanikoetan.

Mapak aztertutik ikusten da hitzak, hiztunak eurak bezala, leku batetik bestera doazela, bideak egiten dituztela batzuetan edo bidean trabak aurkitzen dituztela. Zein indartsuen izateko lehian, hitz batzuk nagusi gertatzen direla eta beste batzuk galtzaile.



4

Hitz sinonimoen hedadura mapan adierazten da.

Horrezaz gainera, hitzen hedapenean gorabeherak ikusten dira; hala, leku batzuk hedapen zentro indartsuak dira (hiriburuak, botere ekonomikoko guneak, kultur guneak, etab.) eta hedatzen dituzten hitzei prestigioa ematen diete. Berrikuntzak onartzeko orduan ere, bakartuta dauden eskualdeek ez dute hain ondo hartzen berrikuntza; kultura zentroek bai, ostera.

Geografia linguistikoarekin Dialektologiak aurrerakuntza handia egin zuen, metodologia zorrotzu zelako batez ere. Inkestako puntuei metodologia hori ezartzeak, emaitzak zehatz eta errakuntzarik gabe konparatzeko bidea ireki zuen, hortik gero ondorio teorikoak atera ahal izateko. Esate baterako, betiko itauna da: non hasten da eta non amaitzen dialekto jakin bat? Bada galdeketen emaitzak mapetan jartzean, agerian geratu zen dialektoen artean ez dagoela muga zehatzik, isoglosa sortak elkarrekin gurutzatzen direla. Lexikoan, kasurako, hitz bakoitzak bere historia dauka, eta hitz baten historiak ez dauka zertan loturik joan beste hitz batzuenarekin, ezta familia bereko hitzenarekin ere.

Geografia Linguistikoaren ekarriek beste ondorio bat ere izan zuten: Dialektologiaren oinarriak dardaran jartzea. Honen arabera, hizkuntza barietateen artean mugarik ez badago, ez dago dialektorik. Batzuek hala interpretatzen zuten. Baina hizkuntza-mapek ez zuten halako ukaziorik ekarri, eta bai ostera dialektoaren kontzeptua zehaztu eta hizkuntzaren aldaketetan hiztunaren protagonismoari leku eman. Espazioan aldaerak daudenez, Geografia Linguistikoak aldaera horien arteko batasunaren printzipioa ezarri zuen.

Hizkuntzako ezaugarri bakoitzaren azterketa egin ondoren, datuak interpretatu egin behar dira, eta

dialektoen arteko bateratasun-ezberdintasunak interpretatu gero. Baina ez bakarrik kopuruaren aldetik, batzuk beste batzuk baino esanguratsuagoak izango dira eta. Dialektoen arteko ezaugarri banatzaileak hiru multzotan bereizten dituzte hizkuntzalariek: arkaismoak, aukerak eta berrikuntzak.

Euskararen kasuan zer den arkaismoa eta zer den berrikuntza bereiztea oso garrantzitsua da, hizkuntzaren hasierako maila edo estraturik ez daukagun aldetik. Horregatik, zenbat eta aldaera gehiago eduki, eta bakoitzaren ibilbide historiko zein geografikoa zenbat eta identifikatuago izan, errazago finkatu ahal izango dugu zer den zaharra eta zer berria.

Adibidez, *iratzarri* eta *urtarril* bizkaieran eta ekialdeko euskalkietan badaude, ez du horrek esan nahi mutur bien artean harreman handia egon dela, hori historiak berehala ukatuko bailuke. Baina muturretan bat egiten bada hitz horien erabileran eta erdialdean *esnatu* edo *ilbeltz* erabiltzen badira, pentsatu beharko genuke lehenengo biak lehenagokoak direla, eta erdialdean hasitako berrikuntzak ez direla muturretara heldu. Horri “muturreko edo bazterreko eremuen irizpidea” esaten zaio.

Hizkuntza-egoera guztiek erakusten dute lehenagoko aldiako informazioa, gehiago edo gutxiago, ageriago edo gordeago. Hau da, aldi prehistorikoak berreraikitze oinarria ematen dute, eta oinarri hori zabalago eta sendoagoa izango da zenbat eta hizkuntza-egoera gehiago izan eskura. Gure kasuan gertatzen den bezala, egoera oso ezberdinak eta asko daude, baina elkarrekin lotuak denak.

3. EUSKARA ETA EUSKALKIAK

Euskarak zenbait puntutan handik honako aldeak, desberdinak diren aldaerak dituela begien bistakoa da, bideetan zehar dabilen edozeinentzat. Gertaera horrek berez ez du aparteko azalpenik behar, natura zein kulturako edozein eragilek aldaketak sorrarazten baititu; beraz, hizkuntzak ez du zertan egonkorragoa izan erakunde politikoak edo luraren erliebea baino. Baina aldaketok gertatzen direnean, ez dauka leku guztietan zertan berdin egokitu.


Euskararen kasuan, gainera, ezin da ahaztu, euskara ez dela hizkuntza ofiziala izan luzaroetan eta, ondorioz, ez dela irakaskuntzan erabili izan. Horrek ez du esan nahi, hala ere, aldaera “literariorik” egon ez denik, idatziz erabiltzean normalizatu bihurtu direnak. Gertatu dena da, aldaera batek ere ez duela iraun besteen gainetik, eta ondorioz, bakoitzaren nagusitasuna eskualde mailakoa izan dela esan daiteke.



6

Dena dela, uste okerra da euskalkien historian dena bereizkuntza izan dela pentsatzea, bateratasunak izan direla kontuan hartu gabe. Sarritan hasierako edo sorrerako sustrai berdina bilatu nahi izaten da, baina aldi berean eta berdintsu jaso dituzten berrikuntzek berdindu egiten dituzte dialektoak, gure kasuan euskalkiak. Horregatik, euskal hizkera guztietan bat datozen fenomenoek kopurua guztira handitu egiten da ikaragarri frogagarriena bakarrik neurtzen badugu, hau da, aldaera guztietan berdin bereganatutako berrikuntzak.

Fonetikan, esate baterako, zenbait hitz, bakarrean erabili ordez beste hitz baten hasierako atal bihurtzen direnean, azken soinuak aldatu egiten dira: *begi>bet-* (*betilun*), *idi>it-* (*itaurren*), *etxe>etxa-* (*etxaurre*), *gari>gal-* (*galbahe*), *itsaso>itsas-* (*itsasontzi*), *gurdi>gurt-* (*gurtardatz*). Eta hori euskararen eskualde guztietan ikusten da.



5

Bonapartek mapa bitan adierazi zuen euskararen aldaeren zabalera. Biek daukate inprimatze-urte bera, 1863. Saillkapen horrek iraun du orain arte.

Euskarak latinetik hartu dituen hitzetan, zenbait aldaketa orokorrak izan dira, zehaztasunetan ezberdintasunak egon arren: hasierako kontsonante gorra soinu-dun bihurtu (*parcere*>*barkatu*, *turris*>*dorre*, *cella*>*gela*), bokal arteko *-n-* galdu (*arena*>*harea*, *corona*>*koroa*, *honorem*>*ohore*), edo bokal artean *-l->-r-* bihurtzea (*voluntatem*>*borondate*, *colum*>*goru*, *coelum*>*zeru*). Aldi berean, latin eta erromantzearen ekarpena euskal lexikoan bateratzailea izan da, ia gaur arte, hainbat berba ekarri dituztelako leku guztietarako berdinak: *arima*, *aingeru*, *bekatu*, *gorputz*...

Morfosintaxiaren alderdian, aditz sintetikoak, euskalki batetik bestera alde txikiak izan arren –batean *dakusagu*, bestean *dakusku*, han *dazagut*, hemen *dazaut*–, euskalki bakoitzaren barruan bateratsu joan dira indarra galtzen, aditz perifrastikoen mesedetan. Fenomeno hori, gainera, Europa sartaldeko beste hizkuntza batzuetan ere berdin antzera gertatu dela gogora dezagun.

Gramatika-atzizkietara bagatoz, izen-deklinabidean, ablatibo kasuan badira oraindik atzizki zahar bi, *-rik* eta *-ti*, *-tik* atzizkiaren mesedetan indarra galtzen joan direnak euskalki guztietan; bazterretako hizkeretan iraun dute bizirik, baina beti atzeraka. Hala *urterik urtera* edo *etxeti nator* esaldietako ablatiboak *urtetik* eta *etxetik* bihurtu dira ia leku guztietan.

4. EUSKARA GUZTIAK ENBOR BERETIK AL DATOZ?

Euskaraz idatzi duten idazlerik zaharrenetatik hasita, behin eta berriro aurkituko dugun kezka da gure

hizkuntzaren aldaeren gainekoa. Euskarak aldaera mordotxoa duelako, batetik, eta aldaeron artean elkar ulertzeko arazoengatik, bestetik.

Elkar-ulertze arazo edo eragozpenok direla eta askotariko iritziak jalgi dira aztertzaileen artean. Baina bat garrantzi oso handikoa, administrazio aldetik zatituta eta banatuta egon izan dela eta oraindik dagoela euskararen lur-eremua. Eta horri atxikita, euskara ez dela izan oraintsura arte –eta orain ere ez lurraldearen zati handi batean– administrazio hizkuntza, ez zaiola ofizialtasunik ezagutu izan. Horrek guztiorrek, hizkuntzen arteko harremanak baldintzatuaz gainera, ez du biderik eman hiztunengan komunitate linguistiko bateko kide izatearen kontzientzia sor zedin.

Hizkuntzalarien artean uste nagusia da euskara jatorrian bat izan dela eta historian zehar euskalkietan banatu eta bereizten joan dela. Baina bizkaiera eta sartalde hizkeren gaineko iritzi bat ere indarrez azaldu da hizkuntzalari batzuen bidez, batez ere atzerrikoetatik: sartalde euskara gainerako euskalkietatik asko aldentzen dela eta bi jatorri aitortu behar ote diren; aitzin- edo protoeuskara batetik bi adar hastandu ez ote ziren: adar batetik bizkaiera edo sartalde-euskara eratorri zatekeen eta beste adarra zatekeen gainerako euskalki guztien jatorria.

XIX. mende amaieran hasita, hurrengo mende gehienez zehar, bizkaieraren eta gainerako euskalkien aldea ez ezik, jatorri ezberdina ote duten ere agerian esaten hasi zen. Willem van Eys holandarrak 1879an adierazi zuen aukera hori. Van Eysi jarraituz beharbada, Arana Goirik eta, ondoren, haren jarraitzaileek, Imanol Arriandiagak eta Koldo Eleizalde kasurako, denak XX. mende hasieran.

Urte batzuk geroago, 1924an munduko hizkuntzen gaineko liburu batean, euskarari zegokion atala Georges Lacombe prestatu, eta han adierazi zuen euskararen aldaeren artean bi multzo egin daitezkeela: bizkaiera eta gainerako guztiak. Julio Urquijok beste horrenbeste esan zuen 1929an, aurretik hizkuntza bakarra izango zirela aitortuta, hori bai. XX. mendean aurrera egin ahala beste aipamen batzuk ere aurkitzen dira ideia bera gogoratuz. C.C. Uhlenbeck hizkuntzalariak 1942an argitaratu zuenez, batetik bilakatuko zen bizkaiera eta bestetik gainerako euskalkiak, bai Espainiako aldekoak bai Frantziakoak. Juan Gorostiaga (1947) eta José Basterretxea *Oskillaso* (1984) bizkaitarrek euskararen barruan familia bereko bi hizkuntza daudela defenditu zuten, bizkaiera eta gainerakoa, bietan euskalki asko daudela.

Koldo Mitxelenari jarraitzen badiogu, egia da zenbait puntutan onartzen duela bide banatetik datozela bizkaiera eta gainerako euskalkiak. Baina bizkaieraren ezaugarri bereizgarriak zehatz eta banan-banan aztertuz gero, ondorioa izango da ezaugarri horietatik batzuk Bonapartek bizkaieraren eremutzat mugatutakotik gora doazela, eta beste batzuk ez direla eremu horretan osoan erabiltzen. Hizkuntzalari handi honen iritziz, garai zaharretan zer gertatu ote zen eztabaidatzea alperrekoa da orduko testigantzarik ez badago. Bizkaieraren lekukotasun argiak, ordea, azken lau mendeetakoak dira eta horrek laguntzen du hainbat puntu argitzen. Esaterako, aditzean gaur egun bizkaieraren bereizgarritzat hartzen diren zenbait forma berriagoak dira beste euskalkiekin bat egiten duten beste batzuk baino. Prozesu historiko osoari erreparatuta, gaurko aldeak ez dira beti halakoak izan.


Euskalkien eta hizkeren arteko eraginak zenbaterainokoak eta zein izan diren azken lau-bost mendeotan hobeto jakiteak asko lagunduko luke auzia argitzen: zertan izan diren joera bateratzaileak eta zertan banatzaileak. Esaterako *-kin* atzizki sozietiboa, gaur ia bizkaieraren erdiraino heltzen dena, erdialdeko hizkeretatik hedatzen joan da *-gaz* baztertuz ala hor zen lehenagotik?

5. EUSKAL DIALEKTO ETA HIZKEREN IKUSPEGIA LEHEN ZAHARREAN ETA KLASIKOETAN

Euskaraz idatzita ezagutzen diren lehenengo testuetatik, idazleek euskararen batasunik eza nabarmendu dute, euskaldun guztientzat testu bat bakarra idazteko zailtasunak. Aipu batzuk ekarriko ditugu hona, idazlanik zaharrenetatik hasita, kezka horren erakusgarri.

Arnaut Oihenart (1592-1667): *Notitia Utriusque Vasconicae* (Paris, 1638) (Gaztelania-itzulpena, P. Javier Gorosterratzu 1929, *RIEV*, Tomo XVII, nº 3, 353. or.)

“Por lo demás, en las reglas anteriores y en los ejemplos de las declinaciones y conjugaciones, hemos seguido casi únicamente el dialecto de la Vascitania, es decir, el usado por los vascos aquitanos, vulgarmente denominados los vascos en la actualidad. La forma navarra difiere no poco de ésta, más la de la Vardulia, o sea de Guipuzcoa y Alava, más que ninguna la autrigónica, la bizcaína, cuya exposición y mutua comparación en particular no es objeto de nuestro trabajo actual.”



Arnaut Oihenart (1592-1667): *Notitia Utriusque Vasconiae* (Paris, 1638)

Joanes Leizarraga (XVI. mendea): *Jesus Krist Gure Iaunaren Testamentu Berria* (Roxela, 1571)

“Gainerakoaz den bezenbatean, batbederak daki heuskal herrian kuasi etxe batetik berzera ere minzatzeko maneran zer differentia eta dibersitatea den.”

Pedro Axular (1556-1644): *Gero* (Bordele, 1643)

“Badakit halaber ezin heda naitekeiela euskarako minzatzeko molde guztietara. Zeren anhitz molde eta differentki minzatzeko baitira euskal herrian. Nafarroa garaian, Nafarroa behean, Zuberoan, Laphurdin, Bizkaian, Gipuzkoan, Alaba-errian, eta bertze anhitz lekhutan. Batak erraiten du behatzea, eta bertzeak so egitea. Batak haserretzea eta bertzeak samurtzea. Batak ilkitzea, bertzeak ialgitea. Batak athea, bertzeak bortha. Batak erraitea, bertzeak esatea. Batak irakurtzea, bertzeak leitzea. Batak liskartzea, bertzeak

ahakartzea. Batak hauzoa, bertzeak barridea. Batak aitonen semea, bertzeak zalduna. Finean bat bederak bere gisara, anzura eta moldera. Eztituzte euskaldun guztiek legeak eta azturak bat, eta ez euskarazko minzatzeko ere, zeren erresumak baitituzte different.”

Joannes Etzeberri Sarakoa (1668-1749): *Eskuararen hatsapenak* (1712)

“Zeren herri bateko Eskuarak baitirudi different dela bertzekotik, eta egiazki badirudigu herritik herrira differentki mintzo garela.

Diferentzia molde hau heldu da, zeren batzuek mintzo baitira hitza luzatuz: Bertzeek laburtuz: Bertze batzuek mehe, edo hitza mehatuz; eta finean bertze batzuek mintzoa lodiegi eginez; orai bada jakin behar dena da, mintzaira hautarik zein denez Eskuararena, eta bide huntaz agertuko da nondik heldu denez Eskualdunen arteko mintzaira differenta.”

Aita Manuel Larramendi (1690-1766) dugu euskal dialektologiaren hastapenetan mugarrria. Koldo Mitxelena, haren lana aztertzean, dio “geroago Jovellanos izan zen bezala, dialektologia modernoaren aitzindaria” izan zela. Lan handia egin zuen euskal hizkuntzaz, eta behin baino gehiagotan aipatzen du era batera edo bestera euskararen forma ezberdinen banaketa, euskalkien banaketa azken finean.

El Imposible Vencido ó Arte de la Lengua Bascongada (1829) lanean, euskarak euskalkiak dituela dio, hau da, hizkuntza beraren barruan aldaera batzuk, leku edo probintzia jakinetan erabiltzen direnak. Euskararen barruan hiru dialekto nagusi bereizten ditu: gipuzkera, Jaurerrikoa edo bizkaiera, eta Nafarroakoa edo lapurtera. Azken biok batera hartzen ditu, gehienez bat bera direlako, gainerako euskalkien nahastarekin; Araban ere gauza bera gertatzen dela dio, denetatik

duelako. Hala ere, euskararen kasuan euskalki guztiak oso eginak dira, bakoitzak bere nortasuna duela. Edozein kasutan, denak dira hizkuntza bera, gorputz beraren atalak. Hizkuntza bateratu horretan sartzen ditu izenak eta aditzak, denak, eta esaldiaren gainerako zatiak. Euskalkiei dagozkie izenaren eta izenondoaren deklinazioak, hau da, artikulua, eta aditzaren jokoak, hau da, aditz-amaierak edo joko ezberdinak.

Corografía de la Provincia de Guipuzcoa (1756) lanean, banan-banan ematen ditu euskalkien ezaugarri behinenak, baita non erabiltzen diren ere. Zuberera, lapurtera, bizkaiera eta nafarrera, aipatzen ditu, gero gipuzkera sakonago lantzeko.

Diccionario Trilingüe del castellano, bascuence y latin (1745) lanaren hitzaurrean dio, hiztegia egiteko, testu idatzi gutxi dagoenez, herririk herri eta baserriz baserri ibili behar izan duela zelan berba egiten duten entzuten, konparatu, aztertu, ortografia eta etimologiak atera, eta hizkuntza-corpora osatu ahal izateko. Euskalkien aldekoa da guztiz, hizkuntzaren aberastasuna erakusten dutelako. Hizkuntza horri *euskera*, *euskara*, *eskuara* esaten zaiola gogoratzen du. Aldaera gehiago dagoela onartuta ere, hiru euskalki nagusi bereizten dituela dio:

“A tres Dialectos principales reduciremos todos los que tiene el Bascuence, al navarro, al Bizcaino y al Guipuzcoano, que son muy regulares, apuntando algunos otros menores, que sin regularidad se conservan, y son indicio de que eran mas en numero en lo antiguo. No hago mencion particular de Alaba, porque en lo general su Dialecto es el Bizcaino, y tambien en lo general el dialecto del Bascuence Francés, es el Navarro.”

Ondoren hiru euskalki nagusien ezaugarriak ematen ditu, gramatikakoak ez ezik doinu eta prosodiaren gainekoak ere: ahoskera, intonazioa, musikaltasuna.

Larramendi oso garrantzitsua izan da, eragin handia izan zuen bere ondorengoengan, ia-ia denek bat egin zuten haren pentsaera eta teoriarekin. Euskalki berdinak aipatzen dituzte denek, dela horiek ezagutu zituztelako, dela Larramendiren teoriari jarraitu ziotelako. Ikus ditzagun batzuen lanetatik hartutako aipuak, nondik norako pentsaeran oinarritu ziren jabetu ahal izateko.

Sebastian Mendiburu (1708-1782): *Jesusen Bihotzaren Debozioa* (Iruñea, 1751)

“Galdu dira, euskarazko Librurik gabez, euskarazko anitz hitz; eta gelditu diranak, ez dituzte Euskaldun guziak aditzen. Badira Gipuzkoan, Nafartar geienak, euskarazkoak izana gatik, aditzen ez dituzten hizketak: baita Nafarroan ere, Giputzentzat berriak diruditenak: eta Gipuzkoako ta Nafartarren bazter



8

Sebastian Mendiburu (1708-1782): *Jesusen Bihotzaren Debozioa* (Iruñea, 1751)

batzuetan aditzen dira, beste askotan aditzen ez diran zenbait hitz-egite. Non nai adi ditezkeanak billatu ditut, al egiñean, artzen ditudala orretarako, euskarazkoak utzirik, beste zenbait hitz.”

Agustin Kardaberaz (1703-1770): *Ejertzizioak II* (Iruñea, 1761)

“Gure errietara gatozen. Egia da, Eskola duten Euskaldun askok Ejertzizioak Gaztelaniaz egiten dituztela; baña ezin ukatuko da, askok orien artean geiena ondo aditzen, barrentzen, edo bear bezala penetratzen ez dutela. Beste alderik orañdañoko Euskaldunak bazekusten, ta orañoak ere badakuste ta egia aitortu bear da: Euskerak usoaren faltaz, zeren Libru gutxi diran, ta orien usorik, eta gogorik ez, Euskeraz eskribitzeko gogoa kentzen duela. Eskribitzea, guziak eta bakoitzak nai duten erara, erraz ezta: edo gure Euskeran ezin datekean gauza da.”

Agustin Kardaberaz: *Euskeraren berri onak* (Iruñea, 1761)

“Itsu-itsuan askok esan oi du, euskera asko dirala, edo erri bakoitzean bere euskara dala;baña zer dioten ez dakite. Ezta ori egia: euskera bat da. Euskara bat onetan, egia da, dialekto edo izkera asko dirala. Autore grabeetan askotan irakurten det griegoan bost dialekto ziradela: Atikoa, Aelikoa, Dorikoa, Jonikoa ta Komuna edo guziena. Onela bada, Frantzian, Nafarroan, Bizkaian, Araban ta Gipuzkoan, beren izkerak, bakoitza bere erara dira: ta ori gauza berria ezta. (...) Dialekto edo itzera oien gañean soseguz pensatzen duenak gauza miragarri ta ezin ukatuko dan bat aurkituko du, eta da, euskaldun bakoitzak izkera zeñ era ta armonia ederrean gordetzen duen, edo dezakean. Nafarroan len ta orañ, bertako ta are geiago Frantziako libruen sokorruaz, nolerebait

errazago beren izkera gorde izan da; baña orrelako lagun gabe, alde oietan eta Bizkaian beren izkeran zeñ ederki irauñ duten ikusteak, txit arritzen nau, ta edozeñ admira dezake: eta marabilla au ondo ikusi, entzun ta aditu gabe, ezin, ala fede, sinistu liteke.

Ainbeste milla anima edo gizon ta andrekin igaroko ogei ta ainbeste urteetan Probinzia oietan Mixioetan jardun bear izan det: eta egunoro ta geiago admiratu izan nau guzietako ta, ez gutxiago, Bizkaiko itzegiteko era ta armoniak. Besteak bezeñ ondo, ta gauzaren batzuetan bearbada obeto, izkeraren legeak an gordetzen dituzte. Guziok Señorrioko, Nafarroako ta emengoa ondo bageneki, añ ederki batean, nola bestean ta iruretan, boz, itz edo berbaz usatu ta jokatu genduke.

Gauza bi alere onen gañean ziertoak dira. Bata, Bizkaitarrak berak, askok beñtzat, gure dialektoan berenean baño predikatzea naiago dutela: eta Bizkaiko predikadore asko gurean predikatzer a oitu edo egin dirala. Bestea da, an ta emen ere, nik ez dakit nola, baña gizon geienak moldekaiz ta gogorkiako, eta andreak berenez poliki ta emekiako itzegiten dutela. Baña orregatik, ya dakus edozeñek, ala gizaseme nola emakumeetan, euskera beti bat eta berbera dala. Gisa onetan edo bestean itzegitea, ferian edo dendan erosten dan gauza ezta: bakoitzak bere dialekto edo izkerari jarraitu ondo: oitura, usu ta kostunbrea ala da, ta aurrera ere ala izango da.”

Juan Antonio Mogel (1745-1804): *Cristaubaren icasbidea edo doctrina cristiana*

“La variedad de los dialectos es tambien una de las dificultades al primer aspecto insuperables; todos ellos se reducen en suma a tres. El Vizcaino, Guipuzcoano y Navarro o Labortano, sin embargo de que aun entre estos hai tales quales variaciones. Qual de ellos deba ser preferido, yo no lo diré, por

que sería disgustar á mas de uno. Solo si, que el Guipuzcoano es mas afectuoso, y su tal qual ventaja consiste, en que así los Vizcainos, como los Navarros les oien con gusto, y le entienden quando por el contrario, no se entienden estos mutuamente. (...) He tenido harto que discurrir sobre el dialecto, en que debia sacarle. Bién conocia, que el Guipuzcoano es mas unibersal, a lo menos en la inteligencia, y que se huviera recibido en lo general con mas aplauso. Pero que dirán los Vizcainos? decia entre mi. Por que no há de tener la Vizcaia algun monumento eterno, ó fixo de su lengua, si acaso en los tiempos venideros la quisieran corromper, y desfigurar los naturales? Convencido de estas razones, y despreciando las mofas, que harán algunos Guipuzcoanos (que las estoi adivinando) con sola la brebe lectura de cortas lineas, hé resuelto sacarle en el dialecto de este Señorío. Mas con la esperanza de vertirle nuevamente en el Guipuzcoano, para que un mismo libro corra en los tres dialectos Labortano, Guipuzcoano y Vizcaino, y se eche de ver de que forman sustancialmente una verdadera sociedad de Irurak = bat.”

Pedro Antonio de Añibarro (1748-1830): *Voces bascongadas diferenciales de Bizcaya, Guipúzcoa y Navarra* (1820 ingurukoa) (Bilbao, 1963, aita Villasanteren edizioa)

“No es diccionario completo; pero si suficiente para el que tiene que ocuparse en Pulpito, y Confesonario. Quando la voz es comun a las tres Naciones precede una C. Que demuestra que es comun y general en los tres dialectos. A la que usan en Bizcaya precede una B. A Guipuzcoa una G. A Navarra una N. En los pueblos rayanos a otra Nación usan las voces de la propia, y de la vecina. La deferencial rigurosa se entiende en lo interior de cada Provincia. Y según he observado, ha habido tiempo que no había diferencia

de dialectos bascongados; y que se han variado insensiblemente, por no usar y continuar con las primitivas voces. Enzun oyr es general en Bizcaya y Navarra y no en el interior de Guipuzcoa: pero se conoce que en algun tiempo usaban de este verbo, pues se valen de el para explicar el oyr misa: meza entzun: mecenzun. Lo mismo digo de Gura izan querer; es comun en Bizcaya; y en Guipuzcoa no se valen de gura sino de nai, a no ser para lo-gura querer dormir o estar somnolento: atzcura, querer o tener ganas de rascar, y otros semejantes.”

Argi ikusten da, bakoitzak bere erara, baina arazo beraren kezka agertzen dutela denek. Batzuek berbeta mota bakoitza zein lekutan egiten den aipatzen dute, beste batzuek esateko modu ezberdinak konparatu. Dialektologian sartu gabe, zantzu batzuk azaleratu dituzte.

6. LOUIS LUCIEN BONAPARTE (1813-1891)

Arestian aipatutako aurrekariak gorabehera, esan daiteke euskal dialektologia bi pertsonaren lana dela batez ere: Louis Lucien Bonaparterena XIX. mendean eta Resurrección María Azkuerena XX.ean. Bi inkesta egin dira berariaz euskararen gainean, bi egile horien eskutik hain zuzen. Azkuerenari Euskaltzaindiak eman zion jarraipena gero.

Louis Lucien Bonaparte printzea dialektologia modernoaren aitzindaria da eta euskal dialektologiaren historia ia osoa, zuzenketa batzuk gorabehera haren lanaren balioak gaur arte iraun duelako.



Bonaparte printzea, hizkuntzalaritzan ekarpenik handienetakoa egin duena.

1813an Ingalaterran jaio zen, Napoleon I.aren anaia baten semea. 1815ean Waterlooko borrokaren ostean Musignanora aldatu zen, Italian. Han egin zituen ikasketak, baita unibertsitatean ere. Ikasketen aldetik kimika, mineralogia eta hizkuntzalaritza ikasi zituen. Europa eta Estatu Batuetan ibili zen. Napoleon III.a lehengusuarengandik datorkio printze titulua Louis Lucieni, baina gainera Frantziako asanbladarako aukeratu zuten eta senataria ere izan zen.


Oxfordeko unibertsitatean Ohorezko Doktore titulua hartu eta Ingalaterran jarri zen bizitzen, hizkuntzalaritzari ekiteko. Frantzian Hirugarren Errepublika ezarri zenean diru-sarrerarik gabe geratu zen eta orduan Gladstoneko gobernuak diru bat izendatu zion ingelesaren dialektoak aztertzeke. 1891an hil zen, 78 urte zituela.

Bigarren ezkontzan euskaldun batekin ezkondu zen, Clemencia Richard Grandmontagne, Atarratzeko (Zuberoa) alaba eta Klaudio Otaegi euskal poetaren koinata.

Bonaparteren lehen harremana euskararekin Londresen izango zen Antoine d'Abbadieren bitartez, baina gero sei aldiz etorri zen Euskal Herrira. Bidai horietan euskaltzaleak ezagutu eta lan-sarea antolatu zuen metodologia jakin bati jarraituz euskararen aldaerak jasotzeko.

Lehenengo bidaia 1856an egin zuen. Baionan izan zituen zain Abbadie, Duvoisin eta Intxauspe. Urte horretako Euskal Jaietan buru egin zuen Urruñan. Hurrengo urtean, 1857an, berriz etorri zen eta Zuberoan eta Zaraitzun ibili zen batez ere. 1866an ekialdeko euskalkiak definitu zituen: aezkera, zaraitzuera eta erronkaria. 1867an bi bidai egin zituen. 1869an Donibane Lohitzunen jarri zuen bulego ibiltaria.

Laguntzaileen taldean honakoak izan zituen lagun: Jean Pierre Duvoisin, Fr. José Antonio Uriarte, Klaudio Otaegi, Emmanuel Intxauspe, M. Salaberry, Bruno Etxenike, Abate Casenave, José Antonio Aspiazu, P. Juan Eloy Udabe, Mariano Mendigacha, Prudencio Hualde, P. José Samper, Abate Ibarnegaray, Pedro José Minondo eta Martin Elizondo.



Le Verbe basque en tableaux (Londres, 1869)

DEUXIÈME TABLEAU PRÉLIMINAIRE, MONTRANT LES NOMBRES, LES PERSONNES ET LES TRAITEMENTS.

			GETURSOAN	BUCALÉN	LAROCHEEN	SOULEYEN	
VOIX INTRANSITIVE							
Singulier	1.	í.	naiz	naiz	naiz	naiz	je suis
		m.	nak	nok	nauk	nuk	"
		f.	nan	nom	namm	nann	"
	2.	r.	zera	sara	sare	sira	tu es
		m.	aiz	az	laiz	iz	"
		f.	aiz	az	laiz	iz	"
3.	í.	da	da	da	da	il est	
	m.	dak	dak	dak	dak	"	
	f.	den	don	dun	dun	"	
Pluriel	1.	í.	gera	gara	gare	gira	nous sommes
		m.	gairuk	gairuk	gairuk	gairuk	"
		f.	gairun	gairun	gairun	gairun	"
	2.	r.	zarre	zarre	zarre	zarre	vous êtes
		m.	dira	dira	dira	dira	ils sont
		f.	diruk	diruk	diruk	diruk	"
	3.	í.	dira	dira	dira	dira	"
		m.	diruk	diruk	diruk	diruk	"
		f.	dirun	dirun	dirun	dirun	"
VOIX TRANSITIVE							
Singulier	1.	í.	dat	dat	dat	dat	je l'ai
		m.	diat	diat	diat	diat	"
		f.	diat	diat	diat	diat	"
	2.	r.	deu	deu	deu	deu	tu l'as
		m.	dak	dak	dak	dak	"
		f.	den	den	dun	dun	"
3.	í.	du	du	du	du	il l'a	
	m.	dik	dik	dik	dik	"	
	f.	din	din	din	din	"	
Pluriel	1.	í.	dagu	dagu	dagu	dagu	nous l'avons
		m.	diagu	diagu	diagu	diagu	"
		f.	diagu	diagu	diagu	diagu	"
	2.	r.	deute	deute	deute	deute	vous l'avez
		m.	dabe	dabe	dabe	dabe	ils l'ont
		f.	dituk	dituk	dituk	dituk	"
	3.	í.	dite	dite	dite	dite	"
		m.	dituk	dituk	dituk	dituk	"
		f.	diten	diten	diten	diten	"

N.B. í, m, f, r. signifient traitement indéfini, traitement masculin, traitement féminin, traitement respectueux. Quant au traitement indéfini il prépose au diablete bas-normand, il n'est en sera question qu'à la deuxième partie.

11

Bonapartek aditz-sistema lau euskalki literarioetan elkarren parean jarrita argitaratu zuen.

Bonaparte printzeak lan eskerga egin zuen, eta horrezaz gain, berak egindako eta laguntzaileei eragindako lanetariko asko eta asko bere kostura argitaratu zituen. Denak dira balio handikoak, baina bi dira ekarpenik handienak: *Carte de sept provinces basques* (1869), Euskal Herriaren mapa, koloreetan euskalkiak, azpieuskalkiak eta aldaerak bereizita dakartzana, eta *Le Verbe basque en tableaux* (Londres, 1869). Horiekin batera, Biblia, dotrina eta ebanjelioen itzulpenak euskararen aldaera ezberdinetara eginak; artikulu eta lan monografikoak aldizkari espezializatueta argitaratuak; eta beste lan asko utzi zituen.

Bi eratako materialak batu, prestatu eta argitaratzen jarri zuen arreta. Alde batetik zuzenekoak, berak tokian bertan batu zituenak edo leku jakinetako berriemaileek lekuan lekuan batutakoak. Bestetik zeharkakoak, berak testu batzuk, batez ere Itun Zahar eta Itun Berrikoak, prestatu eta gazteleratik edo frantsesetik itzultzeko agintzen zien bere ustez eskualde edo toki bateko hizkera ondo zekien eta bere oharrak zehatz-mehatz zainduko zituen jendeari, beti ohar oso zehatzekin.

Laguntzaileak ondo hautatu zituen orohar, eta haiek bidaltzen zioten materiala. Metodologia aldetik zorrotz jokatu zuen, herri hizkerara itzultzeko eskatzen zien, lurralde mugatu bateko aldaera erabiltzeko. Zehaztasun hori lexikoan, fonetikan, ortografian ageri da, lehenetsuna dauka beti lekuan lekuko erabilerak: *ziutatea* esaten badute hori jaso, eta ez *hiria*; *begarria* esaten bada horrela idatzi; edo bestelako ahoskerak: *itsasoät* (<itsasorat), *contraic'in* (<kontrarik egin), *ezpaita* eta abar.

Bonaparteren lanean lau aldi bereizi izan dira. Lehenengoan, 1861-1863, *Langue basque et langues finnoises* lanean aurkeztu zuen lehenengo sailkapena, sei euskalki bereiziz: bizkaiera, gipuzkera, goi-nafarrera, lapurtera, baxenafarrera eta zuberera. Bigarrenean, 1864-1865, lau euskalki bereizten ditu: bizkaiera, gipuzkera, lapurtera eta zuberera. Goi-nafarrera eta behe-nafarrera bitarteko euskalkitzat jotzen ditu, alderdi batzuk besteetatik dituztenak. Hirugarrenean, 1866-1868, bostera ekarri zituen: gipuzkera, bizkaiera, nafar-lapurtera, baxenafarrera eta nafar-zuberera. Laugarrenean, 1869az geroztik, argitaratu zituen lan nagusi biak: *Carte des sept provinces basque* eta *Le verbe basque en tableaux*. Hor ematen duen sailkapena da

erabakigarritzat hartu izan dena. Hiru multzo handitan bereizten ditu zortzi euskalki, 25 azpieuskalki eta 50 aldaera. Hurrengo urteetan, sailkapen horri ohar batzuk egin zizkion, baztanera, erronkaria eta Nafarroako gipuzkerari buruz batez ere.

I. Bizkaiera	1. Ekialdekoa	Markina	V. Hegoaldeko nafarrera garaia	15. Ekialdekoa	Eyue Osaibat Arzizbar Ere Auritz		
	2. Mendebaldekoa	Gernika		16. Iltzarlekoa	Gares		
		Bermeo			17. Mendebaldekoa	Oliza Elaur Gulina	
3. Gipuzkoakoa	Gomina (Plentzia)	Arria Arriquirriaga Otxandio	18. Beraskoa	Atharratze			
	4. Iparraldekoa	Bergara (Leintz) Gatzaga		VI. Zuberoa	19. Erroskaria	Bidakose Urtsiki Ustarroze	
II. Gipuzkera	3. Hegoaldekoa	Bernani	VII. Ekialdeko nafarrera behekoa	20. Garazi-Amikuzeko	Garazi Amikuz Berdoze Arberoa		
		Tolosa		21. Aturrikoa	22. Zaraitziera	Zaraitze Urketa	
III. Iparraldeko nafarrera garaia	4. Nafarroakoa	Aspetitia	VIII. Mendebaldeko nafarrera behekoa		23. Baigorrikoa	Baigorri	
	7. Ultamako	8. Marzango		9. Bortzirietakoa	24. Lapurdikoa	Lekorri	
							Lizaso
	10. Arakilgo	11. Arakilgo		Intza	IV. Lapurtera	13. Beraskoa	Sara Alhoa Donibaitze Lohizune
	12. Gipuzkoakoa	14. Nabasia		Arrangoitze			

12

Bonapartek zortzi multzo handitan bereizi zituen euskalkiak, bakoitzaren barruan hainbat azpieuskalki maila direla.

Sailkapena egiteko zein irizpidetan oinarritu zen Bonaparte ez dago inon zehatz idatzita. Hala ere, berak argitaratutako lanen sarreran eta gainerako ikerketetan egiten dituen oharretan oinarrituta, esan daiteke morfologian aditzaren morfologiari erreparatu ziola batez ere: aditz laguntzailearen banaketa, zuketa eta xuketako alokutiboak, *ukan/lizan* arteko bereizketa, *-gi/-za-* aditz erroak eta euskalkiz euskalkiko beste ezaugarri bereizgarri batzuk. Izenaren morfologian *-a* bokalaz amaitzen diren hitzen deklinabidea (alaba / *al(h)abá* / *alabea* / *alabara*), ergatibo pluraleko atzizkiak

-ak/-ek, soziatiboko atzizkiak *-gaz/-kin* eta datibokoak *-ai/-ei/-er*, *-gan/baitan* banaketa, erakusleak (*kau/gau* / *hau* / *au*) dira garrantzitsuenak.

Hiztegi mailako aldaketak oso kontuan izan zituen. Joskerako atal batzuk ere bai, *-bai* / *-en* banaketa kasurako.

Bestalde, fonetikan kontuan hartu zituen bokalen harmonizazio legeak, [ü] bokala, bokal eta diptongo sudurkariak, aspirazioa, *j- fonemaren ahoskera ezberdinak. Baina aldaketa fonetikoei ez zien ia garrantzirik eman.

Bonaparteri gehien kritikatu izan zaiona da dialektoa bat eta bakuna balitz legez ulertu zuela, eta kontzeptu horren gatibu izan zela. Horregatik bere lanean euskalkiak, azpieuskalkiak eta aldaerak mugatzeko ardura izan zuen, mapetan ondo jaso zuen moduan, 1863an. Euskalkien arteko mugak marra bakarrek adierazi zituen, nahiz eta gaur egun jakina izan euskalki batek ez daukala muga finkoa; fenomeno bakoitzak bere marra baitauka, isoglosen bitartez adierazten den moduan.

Baina argi dago, ondorengo ikertzaile guztiek, xehetasun batzuk gorabehera, Bonaparteren sailkapena onartu dutela oinarritzat. Horrek erakusten du orokorrean ondo asmatu zuela. Eta ondo asmatu bazuen, horrek esan nahi du, nahita edo jabetu gabe, isoglosak erabili zituela, euskara erabiltzen zen lurra ondo bereizitako eremuetan zatitu ahal izateko.



7. RESURRECCIÓN MARÍA AZKUE (1864-1891)

Bonaparteren ondoren arlo honetan ekarpenik handiena egin duena Azkue izan da zalantzarik gabe, dialektologia izan gabe ere.



13


Resurrección M^a Azkue hizkuntza eta kultura ondarearen biltzaile emankorra.

Resurrección María Azkue Lekeition jaio zen 1864an. Gasteizko Seminarioan eta Salamancakoan ikasketak egin ondoren, Bilbon jarri zen. Elizgizon izateaz gainera, Bilboko Institutuko euskarako katedra atera, eta irakasle jardun zuen hogeita hamar urtez. Bere zaletasunak filologia eta musika izanik, horiei eskaini zien lanik handiena, lan emankorra gainera. Gramatika gaietan lan handiak egin zituen: *Euskal Izkindea* (1893), *Diccionario Vasco-Español-Francés* (1905-1906), *Fonética Vasca* (1919), *Morfología Vasca* (1925) eta *Particularidades del dialecto roncalés* (1932), besteak beste. Folklorean

izan zuen beste eremu emankorretarikoa; lanik aipagarrienak: *Cancionero Popular Vasco* (1922) eta *Euskalerrriaren Yakintza* (1942-47). Sorkuntzan ere murgildu zen, genero ezberdinetako lanak idatziz: nobela, zarzuela, antzerkia... *Ardi galdua*, *Vizcaytik Bizkaira*, *Latsibi*, *Jesusen Biyotzaren Illa*...; baita opera ere: *Ortzuri*, *Urlo*. Berak bultzatuta argitaratu ziren *Euskalzale* (1897-1900) eta *Ibaizabal* (1902) aldizkariak euskal gaien gainean. Idazle klasikoen edizio gaurkotuak ere prestatu zituen.

Euskaltzaindia sortu zenean, lehenengo euskaltzainburua izan zen. Horrezaz gainera, *Academia de la Lengua Españolako* kide izan zen euskararen ordezkari, eta Parisko *Société Linguistique* eta San Petersburgoko Zientzien Akademiakoa ere bai.

1951an hil zen Bilbon.



14

Galdetegi dialektologiko moduan prestatutako lana, abiapuntua dakarrena.

Azkuek dialektologiari egindako ekarpenak, baina, hor-hemen sakabanatuta daude, berak beste helburu batzuk bete nahirik jasoak baitira; horregatik bada sistematizaziorik gabeak dira. Horrez gainera Azkuek, bere aldiko gizona izanik, baditu beste akats batzuk ere. Garbizale jokatzan zuen, “jatorrizko euskarara” bihurtzeko grinaz. Euskalki guztien arteko batasunaren alde gogor jokatu zuen, euskaldun guztiok gipuzkeraren ingurura erakartzeko. Bera beste jakintza-arlo batzuk jorratzen ari zen, beste helburu batzuetarako (folklore, etnologia, euskararen batasuna, gramatikagintza, lexikografia...); horregatik fonetika ezaugarriei ez zien behar besteko arretarik jarri. Hizkera mintzatuko laburtzapen eta aldaera fonetikoei zien gaitzespenaz gainera, euskara jantzi eta landua eraiki nahi zuen.

Hala ere, argibide eta informazio asko eman zituen Azkuek, baita ordura arte ibili gabeko bideak urratu ere: euskal azentua aztertu zuen, eta azentuaren arabera euskalkiak nola bereizten diren zehaztu.

Azkuek dialektologiaren esparruan egindako ekarpenetan *Erizkizundi Irukoitza / Triple Cuestionario* lanak aparteko lekua dauka. Euskaltzaindi sortu berriaren ardurarik handienetakoa euskararen batasunerako bidea zuzentzea zen. Horretarako Campión eta Broussain euskaltzainei batasunaz txosten bat egiteko agindu zien (1920). Euskaltzaindiak lau batzar berezi egin zituen 1921-22an gai hau bideratzeko. Eta helburu horren osagarri izan zen *Erizkizundia*, Euskaltzaindiak erabakia hartu beharreko gaietan oinarri sendoagoa izateko.

Azkuek berak prestatu zituen galderak eta sarrerako oharrak, eta baita berak aurkeztu ere euskaltzainei 1921ean. *Erizkizundi Irukoitza* deritza, hiru atal

dituelako: I. Itzen otsa (fonetika), 52 galderakoa; II. Itzen erabidea (morfologia), 69 galderakoa; III. Itz batzuen erabilkera (lexikografia), 68 galderakoa.

Euskal Herri osoan egin zen, 260 inkesta guztira. Inkesten erantzunak *Euskera* aldizkarian argitaratu ziren. Hain zuzen ere, aldizkari hori, RIEVekin batera, izan zen euskal dialektologiaren gaineko lanen agerlekua.

Azkueren lanetako datu asko eta asko ez dira argitaratu izan eta Euskaltzaindiaren artxiboan gorderik daude.

8. BESTE EKARPEN BATZUK

Bonaparteren inguruan sortutako taldea desegin eta Bonaparte bera ere zahartuta, nekatuta eta lehengo bitartekorik gabe agertu zenean, Artuko Campión nafarra ahalegindu zen gehien dialektologiaren gaineko ikerketak bizirik iraun zezan. Bonaparteren lan batzuk gaztelerara itzuli eta argitaratzeaz gainera, *Gramática de los cuatro dialectos literarios de la lengua euskara* (1884) eta *Orreaga* idatzi zituen, besteak beste.

Atzerriko ikertzaileek ere heldu zioten gure hizkuntzaren azterketari. Julien Sacazek Pirinioetako departamendu guztietan egin zuen inkesta 1887 inguruan, Iparralde osorik hartuta. Antzeko beste inkesta ba aurkeztu zuen Jean Bourciez-ek 1895 aldera. Eremu zabalagoa hartu bazuen ere, Euskal Herriko departamendua barruan jaso zuen, aurrekoaren irizpideei lotuta.


R. Trebitsch austriarrak grabaketa batzuk egin zituen 1913an J. Urquijo eta beste ikertzaile batzuen laguntzarekin. 1916-17 bitartean Hermann Urtel-ek Iparraldeko hizkeren grabazioak egin zituen. Bi horiek

dira Euskal Herrian egin diren lehenengo soinu-grabazioak.

Hugo Schuchardt-ek 1922an lan bat argitaratu zuen Sarako hizkeraz. Eta oso kontuan hartzekoa da William Rolloren *The Basque Dialect of Marquina* (1925).

Geroago, 1950etik aurrera, atzerriko hizkuntzalariek prestakuntza hobea ekarri zuten ikasketa arlo honetara. Gogoratzekoak dira René Lafonen lanak, Nils M. Holmer-enak, Geneviève N'Diaye-renak.

Gerra aurretik argitaratutako lanen artean, morfologia arloan balio handikoak dira G. Bähr-ek Gipuzkoarako batutako datuak, eta Nafarroakoak Aita Intzarenak.



15

Koldo Mitxelena erreferentzia izan da euskal hizkuntzalaritzan XX. mendearen bigarren erdian eta batasunerako prozesuan.

Ekarpen garrantzitsua da 1945ean Euskal Herrian *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País* (BRSVP) aldizkaria argitaratzen hastea, lehenengotik argitaratu baitzituen dialektologiako lanak. Hor kaleratu ziren Francisco Ondarra eta Kandido Izagirreren ikerlanak kasurako. Bitartean Euskaltzaindiak argitaratzen duen *Euskera* aldizkariak ere, hainbat lan eman izan ditu.

Ondoren etorri diren beste ikertzaile batzuek, bai metodologian, bai aztergaien eremuan eta aldaeren arteko konparaketa osoagoak eginez, ekarpenak osotzen joan dira.

Halakoa dugu Koldo Mitxelena. Beste arlo batzuk bezala, euskalkiak ere aztertu zituen, zuzenean berak jasotako datuekin askotan. Lan horren emaitza dira artikulu, liburu eta era guztietako argitalpenak. Ikerketen ondorioz, Bonaparteren euskalki-sailkapena zuzendu beharra aipatu zuen, batzuen arteko mugak finago zehaztu beharra. Bere ekarpen ugarien artean azentuaz egindako lanak nabarmendu behar dira. Lau multzotan banatu zituen hizkerak irizpide horren arabera.

Euskararen Hizkuntza Atlasa osotzeko egitasmo ugari bezain aspaldikoei estu lotuta azaldu zen Mitxelena. Atlas hori abian jartzeko prozesuan parte hartu zuen eta berari egokitu zitzaion fonetikako galdera sorta atontzeko ardura. Mitxelenak euskal dialektologiari egindako ekarpenak era askotakoak izan dira: iker sail hau garatu ahal izateko noraezekoak ziren oinarriak jarri zituen; euskalkien ezaugarri behinenak azalerratu, zuzen eta zehatz beti ere, sistematizatuak eta arautuak. Mitxelenak atondutako lanabesak abiapuntutzat jo daitezke. Zehar bidez ere beste ekarpen garrantzitsu bat egin zuen. Berari zor zaio *Anuario de Filología*

Vasca “Julio de Urquijo” aldizkaria 1954an abian jartzea eta hainbat urtez zuzentzea, eta hori izan da dialektologiarako erakusleihu garrantzitsuetako bat bere garaian.

Beste ikertzaile batek, Pedro Yrizarrek, morfologia, eta batez ere aditza aztertuz egindako lana ezin utziko dugu aipatu gabe. Lan handia izateaz gainera, bi alderdi on ditu: Euskal Herri osoa eta euskara bere zabaltasun osoan hartu izana alde batetik, eta aurrekoek egindakoa goitik behera aztertu izana bestetik. Bonaparteren euskalki-sailkapenari zuzenketak egin zizkion, baina bere proposamenetan ere oinarritzko akatsa dago: aditzaren aldaerak eta bokal eufoniak bakarrik kontuan hartu izana.

Euskal Herrian egoera politikoa demokraziara aldatzean, gertakari bi etorri ziren nabarmendu beharrekoak: 1976an Euskaltzaindia dekretu bidez onartua izan zen eta, sasoi bertsuan, Donostia, Deustu eta Gasteizen Filologiako Fakultateetan Euskal Filologiako sailak


eratu ziren. Bi gertakariok erabakigarriak izan dira euskal hizkuntzaren ikasketei bultzada emateko, askoz modu profesionalagoan, eta bereziki dialektologia arlokoiei.

Ikerketarako bideak ugaritu eta hobetu ahala, lanen emaitzak fintzen doaz. Bonapartek egindako euskalkien sailkapenetik, esan daiteke banaketa hirukoitzak irauten duela. Hark A, B eta C izendatutakoei gaur egun Mendebaldeko, Erdialdeko eta Ekialdeko euskalki multzoak esan dakieke.

Baina hortik gora Bonapartek emandako banaketak badu zer zuzendu. Alde batetik, hark ezarritako zortzi euskalkiei hiru gehitu zaizkie gerora, erronkaria, zaraitzua eta aezkera. Mitxelenak Arabako lautadako hizkera galdua ere, “meridional” legez izendatu zuen, nolabait euskalkizat onartuz. Beste batzuen ustez, bizkaiera deritzanaren azpieuskalkia litzateke. Guztira, bada, hamaika edo hamabi euskalki edukiko lituzke euskarak.

Euskalkien kokaguneaz ere izan liteke aldaketaren bat egin beharra. Bizkaierak osotzen du Sartaldeko multzoa, baina horri gehitu behar zaizkio Burgos, Errioxa eta Arabako hizkera zaharrak. Ekialdeko euskalki-multzoa zuberera, erronkaria, zaraitzua eta ekialdeko baxenafarrerak osotuko lukete. Erdialdeko multzoak lapurtera, iparraldeko goi- nafarrera eta gipuzkera biltzen dituela esan liteke.

Euskalkien eta, batez ere, azpieuskalkien mugei dagokienez, aldaketa batzuk egin beharra badago. Mitxelenak eta Yrizarrek batzuk proposatu dituzte, eta lan monografiko sakonagoak egin ahala emaitzak fintzen joango dira, bitartekoak ere gero eta hobeak daude eta.



16

Yrizar hizkuntzalariak ekarpen handia egin du, monografia ugarien bitartez.

9. “EUSKARAREN HERRI HIZKEREN ATLASA” (EHHA) EGITASMOA

Euskaltzaindiak argitaratze eta sareeratze bidean du jada, dialektologia arloan euskaraz inoiz egin den egitasmorik asmotsuena. Europako herrialde batzuetan –hala Frantzia eta Alemanian esaterako– erabilitako metodologia moderno bide bertsutik eta informatika-bitarteko gaur-gaurkoak aplikatuz, hogeitabat urtean garatu den egitasmoa burutzeko bidean du jada Euskal Akademiak, horretarako giza eta tresna-baliabide ugariak erabili ondoren.

EHHA atlasaren ezaugarri nagusiak hauek dira, labur esanda:

Euskara egiten den lurralde osoan 145 herri edo lekutan egin dira inkesta osoak. Lurralde lurralde joanda, Bizkaian 36, Gipuzkoan beste 36 –ez bakarrik gipuzkera eremuan, baita bizkai- edo nafar-hizkerak egiten diren herrietan–, Nafarroan 27 –bertako euskalki edo azpieuskalki diferentek jasotzen direla–. Araban 1 (Aramaio), Lapurdin 15, Nafarroa Beherean 18 eta Zuberoan 12.

Inkesta edo galdesorta osoak 2857 galdera ditu, hizkuntzaren lau alderdi jasotzen dituztenak. Galderarik gehienak lexikoari buruzkoak dira: 2163. Aditzaren morfologiari buruzkoak 595 galdera dira. Joskerari dagozkionak 62 galdera, eta azkenik fonetikari buruzkoak 37.

Lexikoari dagokion galdera-sorta, gaika antolatua dago, Europako beste hizkuntza-atlasetan egin den antzera. Gai-arlo nagusiak hauek dira: 1- Abereak, 2-

Zerua, denbora eta eguraldia, 3- Lehorra eta itsasoa, 4- Arbolak eta landareak, 5- Etxe-abereak eta hazkuntza, 6- Baserri-etxea, 7- Baserriko jarduerak, tresnak eta ekoizpena, 8- Gorputza, eritasunak eta familiako bizitza, 9- Gizarte bizitza eta lan mundua.

Inkesta-lana grabaketa bidez egin da. Jasotako erantzun zuzenak koadernoetan transkribatu dira ondoren; hurrengo pausoa, informazio hori datu-base sistema batera eroatea izan da, beren-beregiko programa baten bidez. Datu-base horretan, galdetutako kontzeptuari emandako erantzun zuzenez gainera, informazio osagarri asko ere jaso da, etnografikoa, linguistikoa edo osterantzekoa. Azkenik, datu-basean oinarriturik, kontzeptu bakoitzaren gaineko mapak elaboratu dira, euskararen lurralde osoan kolore bidez azaltzen dela non zein erantzun izan duen kontzeptu bakoitzak.

Informazio eskerga hau liburuki inprimatuetan, CDetan eta sare bidez argitaratzeko bidean da.

10. EUSKARAREN ESTANDARIZAZIOA XX. MENDERA ARTE

Hizkuntza estandarrak gizartearekin harreman apartekoa dauka. Izan ere, hizkuntzaren bilakaera normalean berez gertatzen bada ere, hizkuntza estandarraren kasuan gizartearen esku hartze zuzen eta antolatuaren emaitza da. Esku hartze horrek, “estandarizazioa” deritzona, hizkuntza estandar bat sortzen du lehenago dialektoak (hau da, aldaera ez estandarrak) baino egon ez diren lekuan.

Ez da erraza zehatz deskribatzea hizkuntza estandarra zer den, baina hartakotzat hartzeko hizkuntza horrek prozesu batzuk beteak izan behar ditu:

Aukerak: era batera edo bestera hautua egin beharra dago; dauden aldaeretatik bat hautatzea dela, edo daudenen artean erdibide edo nahasketa bat bilatzea dela. Puntu honek garrantzi handia du, zeren hautatua den aldaerak prestigioa hartzen baitu, eta harekin batera euskalkiori lehendik erabiltzen dutenek ere.

Kodifikazioa: erakunde batek, Akademiak kasurako, hiztegiak eta gramatikak idatziko ditu aldaera hori finkatzeko, guztiek argiro jakin dezaten zein den araua eta zein ez.

Lantze funtzionala: aukeran hartutako aldaera goi gobernuari atxikiriko zeregin guztietan eta idatzi mota guztietan erabili ahal izatea (hezkuntza, administrazioa, hedabideak...) eta literatur genero guztietan. Hori dela eta, beharbada beste hizkuntza-osagarri batzuk gehitu beharko zaizkio hautaturiko aldaerari, hiztegi teknikoak batez ere, baina era berean dauden formak erabiltzeko estilo-eredu batzuk sortu beharko dira: eskutiz formalentzako ereduak, idatzi administratiboena eta beste.

Onartzea: Aukeratutako aldaera gizarteak onartu egin behar du denen aldaera gisa. Horrek indar handia hartzen du gizarte-talde horren bateratzaile gisa.

Dena den, estandarizazio maila dela eta hainbat eztabaida dago: ea noraino estandarizatu behar den; beharbada ahoskerak ez du behar idazkerak beste, eta gainera estandarizatua ez da zertan aurkeztu aldaera zuzen bakarra balitz legez.

Euskararen kasuan, estandarizazioari begira XX. mendera arte hiru jarrera bereizten ditu Koldo Zuazok.

Lehenengo jarrera mota, erdarek euskara ordezkatzearen aldekoa da. Hizkuntzaren aldaeren arazoari irtenbide egokia asmatu ezinik euskara alboratu eta erdaretara jo izan dutenen jarrera. Ahoz ere gertatzen da hori, baina idatzira jotzean areagotu egiten da arazoa.

Bigarren jarrera mota, sorterriko hizkeraz baliatzea da. Norberak dakien aldaera edo norbere herri edo eskualdeko hizkeraz, aldaeraz, baliatu izan direnen jarrera.

Hirugarren jarrera mota, estandarizazio-bide jakin bat bilatu nahi dutenena da. Auziari nolako edo halako irtenbidea aurkitzen ahalegindu direnen jarrera.


Hirugarren bidetik jo dutenen artean, aspaldiko idazle zuberotarrak nabarmentzen dira, bateratzeko ereduaren bila aparteko ardura erakutsita. Oihenart eta Tartasek, adibidez, aipatzen dute arazoa. Zuberera bazter euskalkia izatea eta hiztun asko ez izatea egon daiteke azpian arrazoi eragile gisa, hango idazleek irtenbide hori hautatu eta inguruko euskalkietara hurbiltzen ahalegintzeko.

Antzinako idazleen artean, dena dela, Leizarragak egin zuen ahaleginik handiena hizkuntz eredu bat osatzeko. Leizarragak lapurteran oinarritu zuen bere hizkuntza, baina baxenafarrera eta zubererarekin osotuta. Leizarragaren ahaleginak, baina, ez zuen jarraitzailerik izan. Berak zekarren mezuak eta mezu hori bultzatzen zuen aginte politikoak ez zuten aurrera egin, eta haren eredu ere bidean geratu zen.

Lapurdikoko itsasaldean sortu eta indartu zen mezu horri aurre egingo kontrarreforma, eta nagusitasun

horrek hizkuntzan ere izan zuen isla. *Kostatarra* oinarri zuen hizkuntza eredia euskaldun guztientzako bakar bilakatzeko asmoa Sarako Etxeberrik adierazi zuen, Axular eredu eta gidari jarrita.

Aita Manuel Larramendik euskararen eta Euskal Herriaren apologia egin zuen batez ere, kanpora begira gehienbat. Euskalkiak zaindu eta lantzearen aldekoa zen. Norbere euskalkiaz gainera, hala ere, beharriaren arabera denak erabili eta lantzearen alde agertu zen. Tokian tokiko euskalkia erabiltzea proposatu zuten berak eta ondoko jarraitzaileek, batez ere predikazioan eta dotrinako zereginetan. Hiztegi arloan halako batasun batera heltzeko nahia erakutsi zuen, euskalkien arteko mugak deseginez, hitzak edo lexikoa zirelako haren aburuz ulergarritasunerako trabarik handiena.



17

Manuel Larramendik hiru hizkuntzako hiztegian, hitzen ordeak emateaz gainera, batzuetan etimologiak ere sartu zituen.

Larramendiren girokoek haren bideari jarraitu zioten orpoz orpo. Aita Sebastian Mendiburuk, Iruñean bizi eta, nafar erako hizkera finkatu zuen idatziz, eta Aita Agustin Kardaberazek, gipuzkeraz idatzi zuen guztiaz gainera, bizkaieraz ere dotrina-liburutxo bi ondu zituen.

XVIII-XIX. mende mugako hegoaldeko euskararen egoeraz jabetzeko, ezinbestekoa da Juan Antonio Mogelen lanari begiratu bat egitea. Markinarra zen, Eibarren jaio bazen ere, baina euskalki biren artean zibo-zabuan garatu zuen bere literatura-lana. Bizkaierak hiztun asko zituen, baina prestigio gutxi. Gipuzkera, ostera, mende erdi bat lehenagotik ospea hartua zen, batez ere jesulagun idazleei esker. Mogelek berak ere gipuzkoar klasikoak izan zituen bide-erakusle: Larramendi, Kardaberaz eta Mendiburu. Hauen lanak irakurriak zituen, eta Pirinioez gorako klasiko batzuenak ere bai (Axular, Oihenart) eta hauen idatzi-ereduak aintzakotzat hartu zituen, bere-berea zuen bizkaierarekin batera.

Bizkaiera literarioaren aitatzat dago Mogel, Añibarrorekin batera. XVIII. mendearen 80ko hamarkadan Asteteren dotrinaren bertsio bat atera zuen bizkaieraz, eta 90ekoan dotrina luze bat idatzi zuen, hau ere bizkaieraz, argitaratu barik geratu zena. Hurrengo urratsa gipuzkeraz eman zuen: *Confesio ta Comunioco sacramentuen gañean eracasteac...* dotrina-liburua idatzi zuen eta 1800ean atera, arrakasta bikaina jadetsiz. Irakurle gehiago eta inprimatzeko erraztasun handiagoak eskaintzen zituen gipuzkerak.

Hala ere, bere jaioterriko bizkaiera ere goi mailara eroaten ahalegindu zen: *Peru Abarka eta Maisu Juanen berba-jardunak* dira Mogeli osperik gorena eman diotenak, nahiz laurogei urte beranduago argitaratu

izan. Antzeko zer bait gertatu zen gerotxoago *ipuin on* edo alegiekin. Bizkaieraz ondu zuen bilduma argitaratu barik geratu zen, baina gipuzkeraz bertsioa, iloba Bizenta Mogelen izenez argitaratu zen 1804an.

Gipuzkera eta bizkaiera hautatzeko orduan nahi eta ezinaren artean aurkitu zen: batzuen eta besteen gogoak bete nahi zituen, obra berak bizkaieraz eta gipuzkeraz eman, baina eragozpenez josita zegoen bidea. Batetik bizkaierak bizkaitarren artean zuen estimu urria, eta bestetik gipuzkoarrendik jasaten zituen arbuio eta destainak. Nolanahi ere, guztientzakotzat gipuzkera erabiltzea ikusten zuen egokiago, beste edozein euskalki baino.

Bai Mogelek, bai Añibarrok, euskalkiz idaztea ezinbestekotzat dute helburu praktikoetarako: dotrina edo erlijio eskola euskaraz emateko; nekazariak zein eskolariek hori zutelako mezua hartzeko modurik zuzenena. Baina aldi berean, euskalki diferenteetako hiztunak elkarrengana hurbiltzeko ahalegin pedagogiko



18

OINA: Peru Abarka eta Maisu Juanen berba-jardunak

handi bat egiten du Mogelek, batez ere *Peru Abarka*-n aurrez aurre ipintzen dituelarik *Peru* eta *Maisu Juan* bizkaitarrak batetik, eta *luebagin* baigorritar bat eta giputz artzain bat bestetik.

Añibarrok, bizkaieraz idatzi zuen guztiaz gainera, badu nafar hizkeraz ondutako dotrina labur bat, lurralde hartako katekesi premiei begira idatzia.

Euskalkien banaketa, bai Mogelek, bai Añibarrok, Larramendiren bidetik egiten dute: hiru literatur euskalki bereizten dituzte, batez ere literaturari begira: nafar-lapurtera, gipuzkera eta bizkaiera. Eta elkar ulertzea elkar gehiago ezagutzean datza. Horren eredu bikaina da Añibarrok atondu zuen gaztelania-euskara hiztegitxo, *Voces bascongadas diferenciales* delakoa: euskal hitzak *c. (común)* markatzen dira guztientzakoak direnean, baina eremu batekoak direnean, *b. (bizcaino)*, *g. (gipuzcoano)* eta *n. (navarro)*.

Mogelen hurrengo belaunaldikoen artean, euskalkietako eta are azpieuskalkietako hitz eta aldaerak erabiltzeko joera bizitu egin zen, batez ere Bonaparte eta haren laguntzaileen ekarriaren ondoren. Honen aurretik ere tokian tokiko hitz eta aldaerak biltzeko eta idazteko joera nabarmena da Juan Mateo Zabala edo Iztueta bezalako idazleetan. Diferentziak markatzeko joera hori nabarmena da orduko idazleetan, baina badira salbuespenak ere; horien artekoa da Jose Francisco de Aizquibel lexikografoa.

Aizquibelek batasunaren arazoari erantzuteko egin zituen proposamenek bi ardatz dituzte: euskararen akademia sortzea eta euskal komunitate linguistiko osoan, hau da, zazpi probintzietan, Iparralde eta Hegoaldean, erabili ahal izateko hizkuntz eredu bat finkatzea.

XIX. mendean, 1876az geroztik bereziki, hizkuntzaren batasunaren kontuak beste bira bat egin zuen. Inguru horretan Sabino Arana Goirik prestigioa eta entzute handia hartu zituen, eta beste arlo batzuetan bezala, hizkuntzaren auzian ere zeresana izan zuen. Ez zuen ondo ikusten euskara eredu bakarra egitea, hiru euskalki nagusiak osotzea proposatzen zuen, bizkaiera, nafar-gipuzkera, eta nafar-zuberera, bakoitzak dituen aldaerak elkartuta. Ortografian bakarrik ikusten zuen batu beharra.

Hain zuzen ortografiari dagokionez, lehenengo idazleetatik ikusten da kezka bidea dela erabakiak hartu eta aukerak egin beharra. Oihenart hartu behar ei da ortografia arauemaileen aitzindaritzat, latinaren eta euskararen alfabetoak ez datozela beti bat baietsi ondoren, erabaki batzuk proposatzen ditu. Tamalez haren proposamenak ez zuen jarraipenik izan. Geroago, Larramendik ere hainbat iritzi eman zituen ortografiaz.

XIX. mendearen aurretikoen artean, Kardaberazek jorratu zuen sakonen ortografia. Larramendiren bideari heldu zion, baina puntu batzuetan urrunago joan zen. Mogelek aurreko bion antzeko proposamenak egin zituen; baita Añibarrok ere.

Zalantzarik gehien sortzen zuten puntuak hauek ziren: *h* idatzi ala ez; *k*-ren ordezt *c* edo *q* erabili ala ez; *ç*-ren ordezt *c* (*e* eta *i* bokalen aurrean) eta *z* (*a*, *o* eta *u* bokalen aurrean).

Horiez gainera, beste arazo batzuk ere bazeuden: *p* eta *b* aurrean *m* idatzi; *v* baztertu eta *b* erabili; fonema bustiei dagokienez, *tt*, *ll* eta *ñ* aurreko *i* bokalik gabe; hasierako *r*- aurrean *e* edo *a* gehitzea.


XIX. mendean eztabaidak aurrera egin zuen. Iparraldeko idazleek alde batetik jotzen zuten, eta Hegoaldekoek bestetik. Bonapartek eta bere laguntzaileek erabilitako sistemak indar handia hartu zuen, jakina. Baina mende amaieraraino helduko gara antzeko eztabaidetan, ohitura batzuk sortu arren, beste puntu batzuetan proposamen irekiagoak utziz.

Ortografia bateratzeko premiak bultzatuta, 1901-1902an hainbat batzar egin ziren, Guilbeau, Gratiem Adema, Arturo Campion, Resurrección M^a Azkue, Sabino Arana Goiri eta beste batzuk tarteko zirela. Azkenean, elkarrekin bat egin ezinik, ez zuten ezer erabaki.

11. EUSKARAREN ESTANDARIZAZIOA XX. MENDEAN

Mende hasierako ahalegin horrek huts eginda, etenaldi bat etorri zen euskara batzeko zereginean. Handik urte batzuetara berriro txosten eta lan batzuk argitaratzen hasi eta, 1918an Euskaltzaindia sortu zenean, honako helburuak hartu zituen: ortografia arautzea, euskal hiztegia eratzea eta euskara bateratzea.

Hasieran Euskaltzaindiak ez zuen finkatu zein euskara-eredu bultzatu behar zuen, baina behin-behineko euskalkia gipuzkera izatea erabaki zuen. Campión eta Broussaini agindu zieten batasunera bidean lehenengo zirriborroa egitea. Hori egin eta eztabaidatu ondoren, ordea, atarramendurik atera ezinik, euskalkien arteko kidetasun eta ezberdintasunak zenbatzea eta zehaztea



19

Euskaltzaindiaren aginduz, Campiónek eta Broussainek txostena egin zuten batasunera begira egin beharrekoak aztertu eta proposatzeko.

erabaki zuten. Horretarako Azkuek *Erizkizundi Irukoitza* prestatu zuen.

Argi dagoena da euskararen batasunak kezka eta ardura handia eragiten zuela, alde eta aurka zeudenen artean.

Aurka zeudenen artean Arana Goiriren argumentuak ziren nagusi: batasuna euskalki bakoitzaren mailan ondo ikusten zuen, baina hortik gora ez. Batetik besterako aldeak ez baitziren elkar ez ulertzeko bestekoak.

Ortografian, ostera, beharrezko ikusten zuen batasuna.

Julio de Urquijo nahiko eszeptiko agertu zen estandarizaziorako. Bakoitzak bere eredua landuz gero besteenak ere ulertuko lituzkeelakoan, utopiko ikusten zuen batasun behartu bat. Honen iritziak eragin handia izan zuen, bere itzala ere halakoa zelako.

Ramón Menéndez Pidakle artifizialtasuna jo zuen prozesu horren gaitzik kaltegarriena.

Hala ere, idazle eta euskaltzaleen artean, estandarizazioa luzamenduetan ibili gabe burutzearen aldekoak ziren gehientsuenak. Aldekoen artean jarrera ezberdinetakoak zeuden.

Batasuna eta estandarizazioa ezinbestekotzat jotzen zuen Luis Elizaldek, hizkuntza literariorako batez ere. Zatiketa eta banaketa kaltegarri ikusten zituen hizkuntzaren iraupenerako. Batasuna hiru arlotan egin behar zen, haren ustez: ortografia, fonetika eta euskalkiak, eta euskalkien barruan aditzean ikusten zuen berak korapilorik handiena.

Estandarizazioaren alde egin zutenen artean, proposamen ezberdinak atera ziren.

Aukeretako bat ‘jatorriko euskarara’ itzultzea da. Aizkibeleg proposatutako bide horri heldu zion R.M^a Azkuek *Euskal Izkindea* lanean, gero hortik aldendu bazen ere. Orain dagoen sakabanaketa bilakaeraren eta auzo-hizkuntzen kutsaduraren ondorio izanik, aurreko egoerara itzuliz gero, euskara jatorraren eta jatorrikoaren mailara joko litzateke, eta hala berdinduta geratuko lirateke euskalkien arteko aldeak.

Bigarren aukeratzat bizkaiera aipatu daiteke. Bizkaieraren aberastasun gramatikaletan oinarrituz, euskalki horri prestigioa ematearen aldekoek hura aurkeztu zuten batasunerako. Neurri batean badauka zerikusia ‘jatorriko euskarara’ itzultzearekin, bizkaiera ikusten baitzuten jatorriko horretatik hurbilen. Hala ere, ez zuen joera horrek jarraitzaile askorik izan.

Hirugarren aukera gipuzkerari lehentasuna ematea da. Hau da proposamenik nabarmenena XX. mendearen

lehenengo erdian, hura ulertzeko modu bat baino gehiago badago ere.

Batzuen iritziz gipuzkera da egokiena, erdikoa, biziena eta erabiliena delako eta besteengan eraginik handiena duelako. Hau da, jatorrasun eta zuzentasun irizpideekin batera arrazoi soziologikoa erabiliz.

Azkue ere gipuzkeraren aldekoa zen, baina ez huts-hutsean, osotuta baino. Gipuzkerari deritzo egokiena, euskaldun gehienek ondoen hori ulertzen dutelako. Baina hizkuntzaren ezaugarri batzuk beste euskalkietan gorde direnean, gipuzkera horri gehitu beharko litzaieke: *dut* adizkia, *-tzu* atzizkia (bitzuk, nortzuk, zeintzuk), *niri-nire*, kasurako. Gipuzkera osotuaren proiektua azaldu zuen *Euskera* aldizkarian, lau helburutara ekarrita: hutsuneak bete; aditz-jokoak kontu handiz aukeratu; arkaismoak aurkeztu eta egokienak proposatu; solezismoa baztertu.

Gipuzkeraren aldekoen artean, batzuk gipuzkeralapurteraren arteko baten aldekoak ziren. 1920an Campionek eta Broussainek Euskaltzaindiari estandarizaziora begira aurkeztutako txostenean, euskalki bakarra aukeratu beharrean, gipuzkera eta lapurtera oinarritzat hartuta, gainerakoekin osotutako eredia proposatzen dute. Praktikan hori egin zuen Orixek bere idatzietan eta, neurri batean behintzat, baita Lizardik ere.

Gipuzkera osotua izan zituen jarraitzaileak, baina, Azkuek bere lan teorikoetan eta literatur lan zenbaitetan ere erakutsi arren, ez zuten eredia nahikoa sistematizatu eta azkenean ez zuen aurrera egin. Horrez gainera, gipuzkoar batzuen jarrerak ez zuen lagundu, gipuzkera osotua gipuzkera hutsa balitz bezala jokatu baitzuten.


Nafar-lapurtera Iparraldeko idazleen artean XIX. mendetik sortzen joan zen, batez ere *Eskualduna* aldizkariaren bidez, eta hori zen beste aukera bat, baina, Iparraldean zabal onartua bazen ere, ez zuen indarririk hartu euskal eremu osorako.

'Ameriketako euskara' esan izan zaiona ere ahotan ibili zen. Ameriketara leku guztietako euskaldunak joatean,

14 **Elkar maitatzen irakasten digu, Jesusek**

Begira zenbat maite duten elkar, hemen ikusten ditugun lagunok. Guk ere, zerbait egin dezakegu, geure lagun urkoak postutzeko. Elkar maitatzeko eta elkarri laguntzeko, eskatzen digu Jesusek. Jesusek irakatsi digun bezala elkar maitatzeko, zer egingo dugu?

Jesusek esan:
«Nere Agindua hauxe da: elkar maite ezazue, Nik maite izan zaituedan bezala.»
(Liber 13, 34)



17 • Zenbat dira Jaungoikoen Lagako Aginduak?
• Hara 9 guren arte.

Maitasuna dan lekuan, Jaungoikoa han.

20

14 **Alkar maitatzen erakusten deusku Jesusek**

Begira zenbat maite daben elkar, emen ikusten doguzan lagunok. Guk bere, zeoez egin daikegu gure lagun urkoak postutzeko. Alkar maitatzeko eta elkarri laguntzeko eskatzen deusku Jesusek. Jesusek erokutsi deuskun legez, alkar maitatzeko, zer egingo doguf?

Jesusek esan:
«Nire agindua auxe da: alkar maite egizue, Neuk maite izan zaituedanex.»
(Liber 13, 34)



17 • Zenbat dira Jaungoikoen Lagako Aginduak?
(Hara 9 gure artean)

Maitasuna dan lekuan, Jaungoikoa an.

21

OINA: Argitalpen batzuetan edizio bat baino gehiago egin izan dira, euskalkiaren arabera.

denen arteko nahasteak hizkuntza batu bat eman zuen zenbait lekutan, Buenos Airesen kasurako. Berez sortutako batasun hori eredugarri jo zuten batzuek.

Gerrak eta gerraosteak isildu egin zuten eztabaida, baina gerraosteko urte ilunak igarota, 1950 inguruan eztabaida giroa berotu egin zen asko. Krutwigek, Euskaltzaindia suspertzeko ardura hartuta, hizkuntza modernizatzeko ahalegina hiru ardatz nagusitan oinarritu zuen: lapurtera klasikoan eraturako hizkuntz eredia bultzatzea; Euskal Herri osorako ortografia bakarra arautzea, mailegutan jatorrizko itxurari eutsiz; atzerriko kultura hitzei (eta jatorri grekolatindarrekoiei batik bat) erabat ateak zabaltzea.

Federico Krutwig buru dela, lapurtera klasikoaren aldeko joerak bere bidea egin zuen. Hainbat alde on ikusten zizkion berak lapurtera klasikoari: tradizioko forma literarioa da; Euskal Herriko bi zatietan erabiltzen da; tradizioaren bidez kutsu nobleagoa hartu eta behar den prestigioa du; Euskal Herriko eskualde guztietan ulertzen da, dialekto guztien sintesia balitz legez; hizkuntza horretan idatzi zutenek euren mugatik harago begiratu eta denen interesen alde egin zuten; forma unibertsala izango da, euskararen ikuspuntutik; hizkuntza perfektua da sorreratik, Leizarragaren eskuetan sortu zenetik. Krutwigek euskalkien iraupena proposatzen du, erabiltzen diren zereginetarako. Baina espainieraz eta frantsesez lantzen diren gaietarako lapurtera klasikoa proposatzen du, kultura hizkuntza gisa eta euskalkien gainetik, goragoko erregistro gisa. Aita Luis Villasantek ere hasieran bide horri oratu zion, baita zenbait idazlek ere, literaturarako erabiltzean. Jon Mirandek eta Gabriel Arestik, esaterako.

I ANDREAREN ZUHURTZIA

Gure hiri, hainbeste ondasunetan aberats honetan, ba zegoen andre gazte, eder eta guztiz atsegin bat, leitu noble eta oneko zaldun baten emaztea.

Eta, hain maiz gertatzen baita, gizonaren umeari ez zaiola janari bakar bai gustatzen, eta plateraz aldatu behar dela, bere senarra asko-esten ez zuelako, Leonetto zeritzan mutil gazte batez amoratu zen andre hura, eta gizon atsegin eta laketagari baina ez hain familia oneko hura, andreaz amoratu zen lalaber, eta bi parteek nahi ditena burura eramaten denez gero, ez zen denbora askorik iragan, bere amorioari bukaera eman ez ziezaioten gabe. Eta honela gertatu zen, ezen andrea, hain eder eta atsegin zenez gero, harez amoratu zela beste zaldun bat, Lambertuccio zeritzaiola izenez, nahiz eta andreak, guztiz atsekabegarri eta asturu-gaitzeko zela zekiela, hura maitatzeko gogorik hartzen ez baitzuen. Gizonak, mandatu eta mezu askorekin kortexatu zuen, eta kortexatze honek ezertarako balio ez ziolako, gizon boteretsua zenez gero, bere gutiziei amore ematen ez bazien, haren fama zikinduko zuela mehatxatu zuen. Andreak, haren gaixatasunaren beldur, haren borondatare makurtzeko deliberoa hartu zuen eta horrela egin zuen. Dama, Isabel zeritzaiola izenez, joan zen, udan ohitura dugun bezala, basa-etxe guztiz eder baitara bizi izatera, eta bertan zenbait egun iragan behar zuen leku baitara senarra joan zitzaion goiz batez. Leonetto etor-erazi zuen, eta hau guztiz kontentuz joan zitzaion. Lambertuccio jauna ere, andrearen senarra ausente zegoela entzunik, bakarrik eta zaldiz joan zitzaion etxera, eta atea jo zion. Andrearen mirabeak, hura ikusirik, batere luzamendurik gabe, iragan-erazi zuen, eta bere ugazandrea deiturik, Leonetto lo-gelan zegoelarik, honela erran zion:

«Andra, Lambertuccio jauna beharrez diagozu».

22


Batasunerako proposatu zen aukeretako bat lapurtera klasikoa izan zen. Horrekin bat egin zuten Luis Villasantek, Federico Krutwigek eta beste idazle batzuek. Hemen Gabriel Arestiren Decameron lanaren itzulpena eredu horretan.

Lapurtera klasikoaren bidea denborarekin bertan behera geratu arren, Krutwig eta haren jarraitzaileek egindako ekarpenak sakon sustraitu ziren. Ekarpene horietako bat da literatura tradizioari ematen zaion lehentasuna. Beste bat, euskara kultura hizkuntza bihurtzeko ahalegina, izan ere, nekazaritza gizartetik industria eta merkataritzara jauzi egin zuen eta administrazioaren aldetik onarpena egonez gero, euskara hedabideetan, irakaskuntzan, administrazioan eta gainerako esparru guztietan sartu behar izanez gero, derrigorra zen estandarizazioa. Hirugarren ekarpena izan zen euskara estandarra Euskal Herri osora hedatu beharrez kontzientzia.

'Euskara osotua' izango da beste joera bat. Azkueren gipuzkera osotua azkenean gipuzkera hutsa bihurtuko zela eta, gipuzkerarenekin batera bizkaieraren eta lapurteraren morfologia-ezaugarriak ere hartuko zituen eredu proposatzen zuten hauek. Bizkaitarren artean izan ziren aldeko sutsuenak (Zaitegi, Aurre-Apr aiz), baina nafar eta lapurtarren artean ere bai. Oskillaso izan zen joera honen bultzatzailea, *Kurloiak* nobela eredu horren erakusgarritzat idatzi zuelarik, erregistro bakoitzaren esparru banaketaren erakusle. Aldeko gutxi bildu zituen, hala ere, joera honek. Artifizialtasuna, naturaltasunik eza egotzi zioten kritiketan, Mitxelenak eta Villasantek besteak beste.

Baziren erdialdeko euskalkietan oinarritutako ereduaren aldekoak ere. Literatura tradizioaren eta arrazoi soziologikoen arteko oreka bilatu nahi dute, eta estandar-eredu hau euskal komunitate osora hedatzearen eta euskara kultura hizkuntza bilakatzearen ahalegin handia egiten da. Hori dela eta, lapurtera, gipuzkera eta goi-nafarreraren arteko erdibide bat proposatuko dute, hau da, Krutwigen lapurtera klasikoaren eta Azkueren gipuzkera osotuaren arteko erdibidea. Horixe izango da Euskaltzaindiak 1968ko Batzarrean onartutako estandar-ereduaren oinarria.

1968an Euskaltzaindiak Arantzazun egin zuen bilera mugari bihurtuko da estandarizazio prozesuan. Han hainbat puntu finkatu ziren, ortografiaz, izenen deklinabideaz, euskal hitz zahar eta berrien formaz. Hortik aurrera ere izan ziren istiluak, *h* eta letra bustien (*ñ* eta *ll*) erabilera zela-ta batez ere. Giro garratza sortu zen kontu horiekin, politika, fedea, gizarte-jokabidea eta denak nahastuz. Hurrengo urteetan, 1978an Bergaran egindako batzarrean eta haren ondotik batez ere, finkatu



23

*Euskara baturako arauak erabaki eta zabaltzea
Euskaltzaindiaren ardurapean egon da eta dago.*

ziren arau nagusiak, gaur egun ia inork zalantzan jartzen ez dituenak eta guztiz gizarteratuta daudenak. Horrez gainera, euskara bakarra izanik, aldaera guztietan, baita euskalkietan ere, ortografia bera erabili beharra finkatu zen.

Morfologian buruhausterik gehien eman dutenak deklinabidea eta aditza dira. Lehendik joera bat sortuta zegoela, 1964ko Baionako biltzarrean hartu zituen Euskaltzaindiak deklinabidearen gaineko lehen erabakiak. Aurreko joera onartuz, deklinabideko kasuen ezaugarriak, bizidunen deklinabidea erabaki ziren. 1979an erakusleen deklinabidea finkatu eta eman zituen horretan azken erabakiak.

Arazorik larriena euskararen estandarizazioan aditza izan da. Euskalki batetik bestera aditz-forma ezberdinak erabili arren, elkarri ulertzeko arazorik ez du ematen.

Bai, ordea, hotsetan, hitzetan, joskeran. Gainera, ez dago tarteko irtenbiderik, bat hartu behar da eta besteak baztertu. Proposamenetan lapurtera eta gipuzkeraren aldekoak bazeuden ere, azkenean nafar-gipuzkeraren aditz-jokoa atera zen garaile, zenbaitetan, ahalezko eta subjuntiboetan batik bat, lapurterari ere eskua luzatzen zitzaion arren.

1983an ekin zion Euskaltzaindiak maileguzko kultur hitzen ortografia arautu eta finkatzeari. Harrezkero hainbat erabaki hartu dituzte: hitz hasierak, hitz bukaerak, *g, j* eta *i*-ren erabilera, *x* duten hitzak, kontsonante multzoak dituztenak, ahoskera, morfologiako erabilera jakinak, etab.

12. EUSKALKIAK EUSKARA LITERARIOAREN ZUTABE


Goian esan denetik ere erraz antzeman daiteke euskal literatura euskalkietan idatzi izan dela nagusiki gerraostera arte eta batez ere Arantzazuko Batzarraren ondoren euskara batuaren oinarriak finkatu ziren arte.

Lau literatura-euskalki erabili izan dira batez ere tradizio idatzian zehar: sartaldekkoa, edo bizkaiera deitu izan dena, gipuzkera, lapur-nafarrera eta zuberera. Hasiera-hasierako idatzietarik euskalkiak, zein bere berezitasunekin, dira tresna literario: Etxepareren *Linguae Vascomum Primitiae* (1545) behe-nafarreraz idatzia da, Leizarragaren *Testamentu Berria* eta gainerako idatziak (1571) lapurtera zaharrez eginak dira. Joanes Etxeberri ziburutarrak eta Axularrek, batak neurtitzez, besteak hitzlauz, liburu baliotsuak aterako dituzte 1627 eta 1645 bitartean, guztiak lapurteraz, baina Leizarragarena baino askoz modernoagoz.

XVI. mendean bertan, sartaldean, *Refranes y sentencias* errefrau-bilduma eta Belotazaren dotrina (1596) ditugu, biak bizkai hizkeran. XVII. mendean Kapanaga mañariarrak bere dotrina (1656) eta Mikoleta bilbotarrak bere gramatika xumea (1653) ertz beretik garatu zituzten. XIX. mende hasierako Bizkaiko klasikoak: Mogeldarrak, Añibarro, Astarloatarrak, Frai Bartolome eta.

Oraintsu ezagutu eta argiratu den Lazarraga arabarraren XVI. mendeko obra ere sartalde-hizkeran idatzia da, nahiz erdialdeko euskararen ukituak dituen.

XVII. mende hasierako Iruñeko poesiak nafar-hizkeran idatziak daude. Berdin Juan Beriaingoaren dotrina (1626) eta meza entzuteko liburua (1621) edota Lizarraga Elkanokoaren obra mardula mende eta erdi gerago.



Lazarragaren eskuizkribua

Zuberoak ere, lurralde txiki eta apalagoa izanik, bere hizkerari gaurdaino atxiki dio, Tartasen *Onsa hilceco bidia* (1666) aitzindari dela. Idazle batzuek, hala ere, lapurterarako joera erakutsi dute, hala nola Oihenartek, bere *Atsotitzak* errefracu-bilduman, nola *Neurtitzak* izeneko poesietan (1657).

Gipuzkeraz beste hainbeste esan daiteke hasiera-hasieratik. Dotrina zahar, errefracu zahar, koplak eta kantu zahar eta gainerakoetan gipuzkeraren aldaeraren bat erabili izan da XVII. mendean, eta Larramendiz geroko literatura guztian halaber. Mendetan barrena gipuzkera barruan ekialdeko ereduak joan da nagusitzen, sartaldekoaren kaltetan. Eta erdialdeko euskalkia izanik, ertzetakoentzat ulerterrazagoa, eta barrutik ere literaturan dinamika biziagoa erakutsi duena, apurka-apurka ospea irabazten eta gailentzen joan da Pirinioz beheko eremuan, Iparraldean lapurterarekin gertatu den antzera.

Edozelan dela ere, euskalkiak izan dira orohar emaitza literarioaren zutabe nagusia XX. mendearen 70eko hamarkada ailegatu arte.

13. EUSKALKIEN ORAINA ETA GEROA

Euskara batua leku ofizialetan zabaltzean, hau da, irakaskuntzan, hedabideetan eta administrazioan, euskalkiak ahozko eremuetara lerratu dira kasu askotan. Etxeko, herriko mailan gorde dira, baina idatzian askoz gutxiago.

Hizkera mota bakoitzak bere lekua hartu behar du eta horretan ere bilakaera gertatu dela argi ikusten da.

Euskara batua sortzeko irizpideak landu eta erabakiak hartu ondoren, 1960-70 bitartean, batuaren aldekoak eta euskalkien aldekoak elkarren kontrakoak ziren aldi berean. Jarrerak nahiko muturrera heldu zirela esan daiteke. Denborarekin gauzak baretzen eta bakoitzak bere lekua daukala aitortzen hasi ziren. Batasunerako emandako arauak eta hartutako erabakiak ondoen beteta ere, herri-hizkeren bizitasuna eta adierazkortasuna behar-beharrezkoak dira hizkuntzaren lehenengo helburua betetzeko, komunikazioa.

1990eko hamarkadan, XX. mendearen amaieran hasita, hizkera bakoitzari lekua egiteko jarrerak gero eta ugariagoak izan dira. Eskola giroan lekuan lekuko hizkerari aitortzea ematen zaio. Herri edo eskualde mailako aldizkariak hedatu diren neurrian, toki euskaldun askotan hartzaileen hizkuntza-ohituretara egokitu dituzte argitalpenen ereduak.



Lekuan lekuko hizkerak ahos ez ezik idatziz ere bizi dira leku batzuetan. Herri edo eskualde mailako aldizkariak horren erakusgarri dira.

25

Irizpide oso ezberdinak erabili izan dira jarraibideok erabakitzeke, ez beti egokienak, baina agerian dago tokian tokikoari balioa eman eta betiko euskaldunen eredia eredu jaso edo landuarekin lotzeko premiari erantzun nahi izan zaiola.

Gauza bera esan daiteke euskararen erabilera hain sendoa ez den herrietan ere. Inguruetak eskualde euskaldunen ereductara hurbiltzeko ahalegina, euskaldun berri-euskaldun zaharren, ikasi gabe-ikasien arteko zuloa eragozteko.

Euskaltzaindiak ere zerbait esan beharra izan zuen, ez bakarrik euskara batua zer den, baita euskara batuaren esparrua zein den ere, egoera eta testuinguru bakoitzak erregistro eta eredu bat eskatzen duelako. Hor dago hizkuntzaren bizitasuna eta adierazgarritasuna. 2004an adierazpen bat kaleratu zuen Euskaltzaindiak euskalkien alde, maila bateko zabalkundea duten esparruetan herri-hizkerak erabiltzea eta euskara batua bera elkarren osagarri direla adieraziz.

Batasunaren goraldian oinarriak finkatzen jarri zenean indarra, eredia zabaltzea eta euskara bera erabilera-esparru berrietara egokitzea zen lehentasunezkoa. Baina azken urteotako kezka erabilera da, ikasitakoa eguneroko bizimodura ekartzea. Orduan, herri-hizkerak, lehenagokoen lekukotasunak, hiztun onen ereduak bihurtu dira iturririk aberatsena erabilerarako dauden hutsuneak betetzeko.

Hau dena transmisioari lotuta dago. Askok aurreratu da euskarari prestigioa ematen, euskara lantzeko bitartekoak lantzen, eta euskarazko produktuak sortzen. Baina gure gizartean gero eta informazio gehiago daukagu eskura, mundua txikitu egin da,

komunikabideak arindu eta teknologia berriak etxeratu egin dira. Beraz, harremanak, interesguneak eta bitartekoak asko aldatu dira gizartearen barruan. Horregatik, euskarak beste hizkuntzen artean bere lekua egin behar duen moduan, euskararen barruan hizkera bakoitzak non, norekin eta zertarako balio duen erabilerak berak finkatuko du.

Hizkuntzaren barruan halako ugaritasuna badago eta eztabaidarako gai bada, hizkuntza hori bizirik dagoelako gertatzen da. Eta bizia inoiz ez dago geldia, etengabe bilakatzen ari da, aldatzen.



26

ITUN BERRIA (Batua)	TESTAMENDU BERRIA (Lapurtera-bazunafarrez)	BARTARZÚN BERRIA (Zoberezat)
<p>Behin, Jesus herri batean zela, lehenaz jositako gizon bat azaldu zen; Jesus ikus-tan, ahospezu hurrea erori eta erregutu zion:</p> <p>–Jauna, nahi baduzu, garbi nazakezu.</p> <p>Orduan, Jesus-ek eskua luzatu eta ukita egin zuen, esanez:</p> <p>–Nahi dut, izan zaitez garbi.</p> <p>Berehala alde egin zion legemak. Jesus-ek inoiz ez adierazteko agindu zion eta esan:</p> <p>–Zozu, azaldu apaizarengana eta eskaini garbikantzen ordainez Moise-ek agindutakoa, ezaugarri izan dezaten.</p> <p>Gero eta gehiago hitz egiten zen Jesus-i horuz, eta jende-talde handiak biltzen ziren hari entzuten eta berak gaitzetatik senda zizitan. Jesus, ordea, toki bakartietara joan obli zen otoiiz egitera.</p>	<p>Behin, Jesus herri horietarik batean zela, horra gizon bat lepraz estalia. Jesus ikus-tan, ahospezu erori eta oiozka hasi zitzaion:</p> <p>–Jauna, nahi baduzu, garbitzen ahal naiz.</p> <p>Jesus-ek eskua luzatu eta hunkitu zuen, erranez:</p> <p>–Nahi dut, izan zaitez garbitua.</p> <p>Berehala leprak utzi zuen. Jesus-ek nehoi ez ermitseko manatu zion:</p> <p>–Zozu, apozatu ager zaite, eta eskain zure garbitzearen ordainez Moise-ek manatua, frogatu izan dezaten.</p> <p>Gero eta gehiago hitz egiten zen Jesus-ek, eta jendelak handiak biltzen ziren haren entzuteko eta beren gaitzetarik sendatuak izateko. Jesus, aldiz, bazterlekuetara joaten zen otoiiz egitera.</p>	<p>Behin, Jesus herri batean zotarrik, legebeltzar betetarik zen gizon bat agertu zen; Jesus-ek ikus-tan, ahospezu litreala erori zen eta otoiiz zion:</p> <p>–Jauna, nahi bazin, garbi nerakazu.</p> <p>Orduan Jesus-ek eskua luzatu eta hunkitu zion, erranez:</p> <p>–Nahi dui, izan zite garbi.</p> <p>Berehala legebeltza joan zion. Jesus-ek ihori ez jakinaraztea manatu zion eta eran:</p> <p>–Zozu, ager apozarengana eta eskant garbitzearen ordainez Moise-ek manatia, ezagugarri bat izan dezaten.</p> <p>Gero eta habero alputzan zen Jesus, eta jentete handiak biltzen ziren haren entziltara eta beren gaitzetarik sendo zizitan. Jesus, aldiz, bazter ginetara joan obli zen otoiiz egitera.</p>

Biblia era askotara itzuli izan da historian zehar, baina gaur egun ere euskara-eredu baten baino gehiagotan argitaratzen da.

BIBLIOGRAFIA

Gómez, Ricardo; Lakarra, Joseba A. (arg.). Euskal Dialektologiako Kongresua (Donostia, 1991ko irailak 2-6). “Julio Urkixo” Euskal Filologi Mintegiaren Aldizkariaren Gehigarriak, XXVIII. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 1994.

Intxausti, Joseba. *Euskara, euskaldunon hizkuntza.* Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaur-laritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia (EJAZN), 1990.

Mitxelena, Koldo. *La lengua vasca.* Durango: Leopoldo Zugaza editorea, 1977.

Sobre historia de la lengua vasca, I eta II. Donostia: Seminario de Filología Vasca “Julio Urquijo” (ASJU), 1988.

Pagola, Rosa Miren. *Dialektologiaren atarian: euskal dialektologiaren historiara hurbilketa.* Bilbao: Mensajero, 1991.

Tovar, Antonio. *La lengua vasca.* Donostia: Biblioteca Vascongada de los Amigos del País (BVAP), 1950.

El euskera y sus parientes. Madril: Minotauro, 1959.

Txillardegi / Aurrekoetxea, Gotzon (koord.), *Euskal dialektologiaren hastapenak.* Bilbo: UEU, 1987, 2. edizioa.

Zuazo, Koldo. *Euskararen batasuna. La unificación de la lengua vasca. L'Unification de la langue basque.*

Bilbao: EHU-Euskaltzaindia, 1988.

Euskalkiak, herriaren lekukoak. Donostia: Elkar, 2003.

Euskara batua. Ezina ekinez egina. Donostia: Elkar, 2005.

ILUSTRAZIOEN ITURRIAK

1. *A Poplar tree at Cunninghamhead, North Ayrshire, Scotland*. Egilea: Roger Griffith.
2. Egileena.
3. Egileena.
4. AURREKOETXEA, G.; IGLESIAS, A.; VIDEGAIN, X. “Bourciez” bildumako euskal atlasa (BBEA): 1. lexikoa, ASJU-ren gehigarriak XXXVIII-2 (2004). Leioa: Gipuzkoako Foru Aldundia-EHU, 2007.
5. MITXELENA, KOLDO. *La lengua vasca*. Durango: Leopoldo Zugaza editorea, 1977.
6. *Catálogo del patrimonio artístico de la Sociedad Bilbaina*. [textos], José Antonio Larrinaga, Ana Villacorta. Bilbao: Sociedad Bilbaina, 2008.
7. Liburutegi Digitala. Eusko Jaurlaritza.
8. Liburutegi Digitala. Eusko Jaurlaritza.
9. ARANA MARTIJA, J.A. *Resurrección María de Azkue*. Bilbao: Colección “Temas Vizcaínos”, 103-104, 1983.
10. BONAPARTE, LOUIS-LUCIEN. *Le verbe basque en tableaux*. Londres: Strangeways & Walden, 1869.
11. Liburutegi Digitala. Eusko Jaurlaritza.
12. TXILLARDEGI; AURREKOETXEA, G. (koord.). *Euskal dialektologiaren hastapenak*. Bilbo: UEU, 1987, 2. edizioa. (Moldatua)
13. CHARRITON, P. *Pierre Broussain sa contribution aux études basques (1895-1920)*. Paris: Editions du Centre National de la Recherche Scientifique, 1985.
14. AZKUE, R.M^a. *Erizkizundi irukoitza*. Bilbao: Euzko-Argitaraldia, 1921.
15. HARITSCHELHAR, JEAN. *Koldo Mitxelena (1915-1987)*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 1988, Bidegileak-1.
16. Egileena.
17. LARRAMENDI, M. *Diccionario trilingue del castellano, bascuence, y latin*. San Sebastián: Bartholomè Riesgo y Montero, 1745.
18. Liburutegi Digitala. Eusko Jaurlaritza.
19. *Informe de los señores académicos A. Campión y P. Broussain a la Academia de la Lengua Vasca sobre unificación del euskera*. Bilbao: Imprenta del Ave María, 1920.
20. *Kristau ikasbidea*. 1. Madrid: Comisión Episcopal de Enseñanza, Secretariado Nacional de Catequesis, 1974. Versión en euskera unificado del Catecismo Escolar nº 1, en edición promovida por las diócesis de San Sebastián y Pamplona.
21. *Kristau ikasbidea*. 1. Madrid: Comisión Episcopal de Enseñanza, Secretariado Nacional de Catequesis, 1978. Versión en euskera vizcaino del Catecismo Escolar nº 1, en edición promovida por la diócesis de Bilbao.
22. ARESTI, G. *Boccaccioren Dekameronen tipi bat*. In *Gabriel Arestiren Literatur Lanak-9: Itzulpenak (II)*. Bilbao: Bilboko Udala, Bizkaiko Foru Aldundia, Susa, 1986.
23. *Euskera. Batasuna: Azken araudiak*. Bilbao: Euskaltzaindia, 1969.
24. Gipuzkoako Foru Aldundia: <http://www.gipuzkoakultura.net/lazarraga/>
25. Egileena.

26. *Itun Berria: grekoa-latina-euskara*. Lazkao: Bibli
Elkarte Batuak: Pax, 1995.

Testamendu berria, Elizen Arteko Biblia Elkartea. 2. argit.
hobetua. Ahurti: Biblia Elkartea; Madrid: Bibli Elkartea
Batuak, 2001.

Batarzün Berria [Junes Casenave-Harigilek Xuberoko
euskalkiarat egokia]. Ahurti: Biblia Elkartea: Belokeko
Fraidetxea, 2002.



EUSKARA MINTZAGAI

1. Euskararen geografia historikoa
2. Ahozko hitzetatik idatzietara
3. Euskal Herriko prentsa:
XVIII.mendetik 1945era
4. Euskara eta euskalkiak



www.euskara.euskadi.net


Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

ISBN: 978-84-457-2845-1



9 788445 728451

P.V.P./Salneurria: 12 €



Louis-Lucien Bonaparte printzearen maparen berrargitalpen hau 2008ko azaroan egin da, 1863an Londresen sortutakoa digitalizatu eta berriztatuta. Jatorrizkoa Labayru Ikastegiaren Euskal Bibliotekakoa da, eta neurria 100 x 120 cm da. Euskara Mintzagai bildumako *Euskara eta euskalkiak* liburuarekin batera zabaldu da.



Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
 Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco